

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXX. edizioa

2 0 1 8



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXX. edizioa

2 0 1 8

*Mi
Rafael Koleta*

Fotokonposizioa eta fotomekanika:
ARTEBURU, C.B.

Inprimatzailea:
Gráficas Irudi S.L.

Lege Gordailua: BI-840-2018

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso ditu.



Lehenengo eta behin, zorionak irabazleoi, ipuin-lehiaketa honetara aurkeztu eta saria lortu duzue eta! Ez ditugu ahaztu gura lehiaketa irabazten saiatu diren gai-nontzeko guztiak ere. Eurei ere, eskerrik asko ahalegina egiteagatik!

Gogoan izan guztiok irabaztea garrantzitsua dela baina, are garrantzitsuagoa, parte hartzea. Izan ere, bizitza honetan parte hartzea izaten da saririk onena.

Bilboko Udalak 30 urte daramatza Rafael Mikoleta ipuin lehiaketa antolatzen eta euskarazko idazketa, irakurketa eta sormena sustatzen.

Gizakiak, gizaki denetik, beti kontatu izan ditu ipuinak sutondoan. Irakurtzen eta idazten ikasi aurretik ipuinak kontatzen zituzten ahoz aho gure arbasoek, eta horrela izan da gaur egun arte. Zuek ere lehiaketa honetarako ipuinak sortu dituzue. Horretarako irudimenari hegaz egiten utzi diozue; esploratu, amets egin eta mundu berriak aurkitu dituzue.

Seguru nago zuen artean etorkizuneko istorio-egileak daudela.

Eskerrik asko zuen irudimenaren argiaz mundua alaitzen laguntzeagatik.

Juan Mari Aburto
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta hamazortziko martxoaren hamabostean, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXX. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 780 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. LILI ETA KOKO
Sara Bilbao Isar
Kirikiño Ikastola HLBHIP
2. HERRIKO ALTXORRA
Txaber González Gorosabel
Kirikiño Ikastola HLBHIP
3. AGUREA ETA GAZTEAK
Bingen Bilbao Obieta
Kirikiño Ikastola HLBHIP

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. SPERO
Andrea Vasilescu
Maestro Garcia Rivero HLHI
2. TXIKLE BATEN ISTORIA
Imanol Gaitero del Castillo
Kirikiño Ikastola HLBHIP
3. IZAR BATEN DISTIRA
Jone Sasia Tato
Kirikiño Ikastola HLBHIP

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. HITZIK EZ
Maider Martínez de la Hidalga Grande
Solokoetxe BHI
2. FOKA PENAGARRIA
Uxue Goiri Matesanz
Kirikiño Ikastola HLBHIP
3. BIDAIA
Ainhoa Arzuaga Andrió
Ikasbide HLBHIP

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. URAKANA
Ander Villacián Crespo
Artxandape Ikastola HLBHIP
2. GEZURRETAN
Nerea Erdozain Toribio
Gabriel Aresti BHI
3. ERRAUTSETATIK BERPIZTUA
Nahia Carmona Molina
Artxandape Ikastola HLBHIP

ARGITARAGARRIAK

A **Kategoria:**

IZENIK GABEKO UMEA, Enara Marín Uriarte, Kirikiño Ikastola HLBHIP
UDAKO TALDEA ETA IZURDEA, Marene Karmelo Obieta, Kirikiño Ikastola HLBHIP
IKASKIDE BERRIA, Elene Elorriaga Legarreta, Kirikiño Ikastola HLBHIP
ZERTARAKO NAHI DUZU MUGIKOR BAT?, Iria Mateo Ferreira, Hijas de la
Caridad N^a Sra. de Begoña HLBHIP

B **Kategoria:**

HOSTO BATEN ISTORIOA, Aner Goldaratzena Bilbao, Deustuko Ikastola IPI
PENTSATZEKO ASKE, Ainhoa Sastre Vázquez, Kirikiño Ikastola HLBHIP
GAUEKO AMESGAIZTOA, Peio Elorriaga Legarreta, Kirikiño Ikastola HLBHIP

C **Kategoria:**

JAIOTZEAN BANATUAK, Sara Iglesias Montañez, Ikasbide HLBHIP
ZURI-BELTZEKO ARGAZKI BATEN ISTORIOA, Garazi Oñate Zarraga,
Solokoetxe BHI
KARTOIZKO PANPINA, María Meaza García, Artxandape Ikastola HLBHIP

D **Kategoria:**

HIRU PAUSOTAN, Teresa Macarulla Uriarte, Ntra. Señora de Begoña LBHIP
EZ DUT EZER ULERTZEN, Ibone Ipiña Villamariz, Ikasbide HLBHIP
PERTSONAK, Anne Parrado López, Ikasbide HLBHIP

Koldo Narbaiza Olaskoaga, epaimahaiburua

Lutxo Egia, epaimahaikidea

Igone Etxebarria, epaimahaikidea

Irune Berro, epaimahaikidea

Irati Malatsetxebarria, epaimahaikidea

Juan Ramon Madariaga, epaimahaikidea

Txani Rodriguez, epaimahaikidea

Luis Gutierrez, epaimahaikidea

Pedro Alberdi, epaimahaikidea

Goizalde Landabaso, epaimahaikidea

Nagore Layuno, idazkaria

Wig
Kolela
Wig
Kolela
Wig
Kolela
Wig
Kolela
Wig
Kolela
Wig
Kolela
Wig
Kolela



A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



LILI ETA KOKO

Sara Bilbao Isar
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Behin batean, bazen Lili izeneko igeltxo bat. Haren azala **BERDE ARGIA** zen eta begi **URDINAK** zituen. Hanka luzeak zeuzkan, eta horregatik, bere herrian antolatzen zuten salto lehiaketa irabazten zuen urte guztietan.

Dena den, Lili ez zen oso ospetsua igelen artean; irudimen handia zuenez beti istorio bitxiak asmatzen aritzen zen. Gainerako igelek ez zituzten bere kontakizunak sinisten eta pentsatzen zuten ero samar zegoela.

Liliri asko gustatzen zitzaion iluntzean hondartzaren harean jesartzea eta izarrak ikustea.

Halako batean, Koko izeneko krokodilo bat agertu zitzaion. Kokok ezkata **BERDE ILUNAK** zituen gorputz osoan eta haren begiak **MARROIXKAK** ziren. Igerilari bikaina zen, 45 km orduko egiten baitzuen. Ahoa hortz zorrotzez beteta zuen, eta horregatik, beste animaliak beraren beldur ziren, baina Koko berezia zen barazkijalea zelako.

—Kaixo, igeltxo! Ni Koko naiz eta ur korronte batek honaino bultzatu nau. Lagunduko didazu nire etxera itzultzen? —esan zion Kokok Liliri.

—Eta nola jakingo dut ez nauzula jango? —galdetu zion Lilik.

—Barazkijalea naizelako.

—Kar, kar, kar! Krokodilo barazkijalea! Lili, ez joan berarekin! Tranpa bat izango da —esan zioten beste igelek.

Lili isilik gelditu zen minutu batzuetan, eta azkenean, esan zuen:



—Berarekin joango naiz bihotz onekoa naizelako.

Lili Kokoren gainean eseri zen eta ospa egin zuten elkarrekin.

Gaua gainean erori zitzaien, Kokok uharte bat ikusi zuen eta proposatu zion Liliri bertan lo egitea. Lili urduri samar zegoen haragijale batekin lo egingo zuelako, baina baietz esan zion. Liliren zorionerako Kokok ez zuen jan.

Egunsentian erabaki zuten beren bidaia jarraitzea. Hasieran, dena lasai zegoen: itsasoa bare, zeru urdina... Baina bat-batean, haize hotza, zeru grisa... Izugarritzko ekaitza erori zitzaien. Haizeak Lili erorarazi zuen eta korronteak bultzatu zuen. Kokok ikusi zuenean Lili ez zegoela bere gainean haren bila hasi zen.

—Lili! Non zaude? —oihukatu zuen.

Aurkitu zuenean, berarengana hurbildu zen:

—Eskerrak aurkitu zaitudan! Ondo zaude? —galdetu zion.

—Ez! Hanka bi harri hauen artean trabatu zait!

Orduan, Kokok adar bat hartu eta harriak bultzatu zituen hanka libre gertatzeko. Horrela, Liliren bizitza salbatu zuen.

Minutu batzuk pasatu eta gero, ekaitza joan zen, eta Lilik eta Kokok bidaia jarraitu zuten. Ordu pare bat pasatu ondoren Kokoren etxera heldu ziren.

Hor, bere familia eta lagunak zain zeuden.

—Kaixo, Koko! Zelan zaude? Zelan bidaia? —galdetu zioten denek.

—Ondo nago, baina bidaia honetan gauza zoragarri asko gertatu zaizkit. Aurkeztu nahi dizuet etxera itzultzen lagundu didan igeltxo. Gera zaitez apur bat gehiago ospatzeko, Lili —esan zion Kokok.



- Eskerrik asko, baina etxera joan behar dut kezkatuta egongo dira eta.
Gainera, hau dena kontatu behar diet, baina seguruenik ez didate sinistuko.
—Agur, Lili, ikusi arte —esan zion Kokok.
—Berdin, lagun, eta kontuz ur korronte horiekin!

HERRIKO ALTXORRA

Txaber González Gorosabel
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Orain dela urte batzuk Lekeitio izeneko herri batean 12 urteko mutiko bat bizi zen, Ander deiturikoa. Anderrek ilea beltza zuen, begi urdin-urdinak, azala nahiko zuria eta altua zen. Ander Santa Katalina kaleko 5 zenbakian bizi zen, farotik hurbil. Anderrek lagun talde bat zeukan, Lekeitio ere bizi zirenak, Ander bezala. Leirek ile marroia zuen; eta Ubiriatar bikiak, Unax eta Endika, berdin-berdinak zirenak, ile horikoak ziren.

Egun batean lau lagunak bizikleta hartu eta herritik ibiltzeko gelditu ziren. Leire heldu zen lehenengo, bi minuturen buruan Ander heldu zen, eta azkenik, beste lau minuturen buruan Unax eta Endika bikiak. Bizikletan ordu laurden bat ibili ondoren kale ezezagun batetik pasatu ziren, eta bat-batean Leire bere bizikletatik erori zen.

—Nola jausi zara? Ondo zaude? —Galdetu zioten besteek.

—Ondo nago —hasi zen Leire—. Zilindro horregatik jausi naiz —esan zien beraien aurrean zegoen zilindro bat seinalatuz.

Unaxek Leirek seinalatzen zuen zilindroa hartu zuen, zabaldu eta zilindroaren barrenetik pergamino zahar bat atera zuen. Pixka batean isilik egon ondoren, hau irakurri zuen:

«Itsasoaren erdian, busti gabe, etxea eraiki dezakezu adreilurik gabe. Non gaude?»

—Zer esan nahi du? —galdetu zuen Endikak.

—Asmakizun bat da —esan zuen Anderrek dudarik gabe.

—Aizu! Esaldia mihiaren puntatik kendu didazu —esan zion Leirek Anderri haserre—. Eta asmakizunaren erantzuna UHARTEA da; agian uhartean zerbait egongo da!

—Zergatik ez gara bihar goizeko 10:30ean geratzen? Itsasbehera da —esan zuen Anderrek.

—Ondo! —beste hirurek.

—Bihar arte —esan zuten denek batera.

Bizikletak hartu eta etxera joan ziren. Ander etxera heldu zenean aitari eta amari kontatu zien arratsalde horretan gertatutako guztia.

—Ander, kontuz ibili beharko duzue! —amak.

—Bai, ama, kontuz ibiliko gara —Anderrek ahots apalez.

—Itsasgora izan baino lehen bueltatu beharko duzue; bestela gutxienez sei ordu eman beharko dituzue han —esan zion aitak.

—Baietz, itsasgora izan baino lehen bueltatuko gara.

Hori esan eta ohera joan zen Ander. Hurrengo goizean, 10:30ean puntuan elkartu ziren lau lagunak hondartzan uhartera joateko. Denak oso urduri zeuden.

Hondartza uhartearekin lotzen zuen malekoi bat zegoen, itsasbehera zegoenean bakarrik agertzen zena. Pixka bat itxaron behar izan zuten malekoia hobeto agertu arte; ondoren abiatu ziren. Heldu zirenean, bilatzen hasi ziren zuhaitzetan, bide zidorretan... Baina ez zuten ezer aurkitu.

—Han goian ikurrina dago, ez dugu azpian begiratu! —Anderrek.

—Arrazoa duzu! Goazen! —oihukatu zuen Leirek.

Ikurrina zegoen harrira joan ziren arrapaladan. Bost minutu bilatzen egon ondoren, Endikak beste zilindro bat aurkitu zuen. Zilindroa zabaldu eta beste pergamino zahar bat atera zuen. Bertan hauxe irakurri ahal zen: «Bota nazazu uretara, eta itxaron.»

—Bota ezazu! —esan zion Anderrek Endikari.

Endikak zilindroa uretara bota zuenean, zerua ilundu zen. Zilindroa uretan sartu zen lekuan zurrumbilo bat sortu zen. Zurrumbiloaren barrualdetik altxor bat agertu zen, kutxa handi bat, urrezko txanponbez beteta. Orduan, Anderrek bere aititek kontatzen zizkion istorioak, Koxme begi urdinari buruzkoak, gogoratu zituen eta lagunei esan zien:

—Koxme begi urdin pirataren altxorra da! Ziur nago!

Ordurako altxorra bere oinetan zegoen. Itsasoa igotzen ari zela konturatu zirenean, Leirek esan zien:

—Hobe dugu azkar ibiltzea, marea igotzen hasi da, eta malekoia ia-ia ez da ikusten!

—Zer egingo dugu altxorarekin? —Unaxek.

Apur bat pentsatu ondoren, beren lekura bueltatzea erabaki zuten. Altxorra uretara bota zuten eta korrika hondartzara bueltatu ziren. Lau lagunak poz-pozik bueltatu ziren etxera, bazekiten egun hori ez zutela inoiz ahaztuko.



AGUREA ETA GAZTEAK

Bingen Bilbao Obieta
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Behin batean, Bizkaiko herri txiki batean agure zahar bat bizi zen etxe zahar batean. Umeak ez zitzaizkion gustatzen eta asko haserretzen zen bere etxera hurbiltzen baziren.



Egun batean, bi mutil zeuden futbolean jolasten agurearen etxe ondoan zegoen zelaian. Batek baloia jaurtitzen zuen, eta bestea bi zuhaitzen artean jarrita, berriz, gelditzen saiatzen zen. Halako batean, baloia airera bota zuten eta agurearen etxeko leiho batetik sartu zen, kristala apurtuz. Mutilak, izoztuta bezala, geldi-geldi geratu ziren. Handik gutxira agurea atera zen bere etxeko atetik. Haserre bizian zegoen, eta baloia eskuetan hartuta umeengana abiatu zen lasterka. Hain zegoen haserre, ez baitzuen lurrian zegoen harri bat ikusi, eta lurrera jausi zen. Lurrian etzanda geratu zen. Mugitzen ez zela ikusirik, mutilek hurbiltzea erabaki zuten. Buruan odola zeukala ikusi zuten eta mugikorretik anbulantzia bati deitu zioten. Anbulantzia heldu zenean, agurea barrura sartu eta ospitalera eramane zuten.

Bi mutilak etxera abiatu ziren lasterka eta euren gurasoei kontatu zieten gertatutakoa. Hurrengo egunean ospitalera joan ziren eta agurearengatik galdetu zuten. Han esan zieten konortetik gabe zegoela oraindik, eta bakarrik zegoenez, zaintzen geratzea erabaki zuten bi mutilek.

Egun bi eman zituen agureak konortetik gabe, baina azkenean esnatu zen. Begiak zabaldu zituenean bi mutilak ikusi zituen bere ondoan. Hasieran ez zekien ondo zer gertatu zen, eta haserretu egin zen agurea. Mutilek barkamena eskatu zioten, eta gertatutako guztia eta bera zaintzen zeudela azaldu zioten. Agurea konturatu zen mutilak ez zirela hain gaiztoak, berak ere barkamena eskatu zien eurekin haserretu izanagatik.

Agurea ospitalean egon zen egun guztietan mutilak joan ziren bisitatzen. Behin sendatu ondoren, etxera joan, eta bisitatzen jarraitu zuten mutikoek. Agurea eta mutilak lagun minak egin ziren, eta guztiek ikasi zuten zerbait berria bestearengandik. Mutilek jende nagusia errespetatzen eta zaintzen, eta agureak zein ona zen gazteen poztasuna eta maitasuna. Agurea ez zen gehiagotan bakarrik egon, eta nahiz eta mutilak bihurrikeriaren bat egin, ez zen inoiz eurekin haserretu.

IZENIK GABEKO UMEA

Enara Marín Uriarte
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazen behin Xabi izeneko mutil bat. Xabiri lagunekin jolastea gustatzen zizkion, eta lagun onak zituen. Egun batean, Xabi eta bere lagunak mendira joan ziren; Xabi despistatu egin zen eta galdu zen. Bere lagunak berari deika eta deika aritu ziren, baina ez zuten aurkitu. Xabi oso beldurtuta zegoen, eta denbora pasatu eta gero, beste ume bat agertu zen. «Hori ni bezalakoa da» pentsatu zuen Xabik; beste umeak ere gauza bera pentsatu zuen.



Xabik beste umeari galdetu zion:

—Zelan deitzen zara?

—Ez daukat izenik —esan zion beste umeak.

Xabi umeak esandakoarekin harritu egin zen: «zelan ez zuen izenik!»; Xabik umeak gezurra esaten zuela pentsatu zuen. Xabik hori utzi eta bere lagunak bilatzera joan zen, baina ez zuen inor ere aurkitu, eta triste jarri zen. Bat-batean, espero ez zuenean, beste umeak esan zion:

—Lagundu ahal dizut laguntza nahi baduzu; baina laguntzen badizut, izen bat ipiniko didazu.

Orduan, Xabi konturatu zen beste umea berari jarraitzen ari zitzaiola.

Xabik baietz esan zion umeari, eta biak batera Xabiren lagunak bilatzera joan ziren. Xabiri beldurra kendu zitzaion, eta esan zuen:

—Uste dut bakarrik jarraitu ahal dudala, baina behar bada, gero bueltatuko naiz zuri esatera zein den aurkitu dudana.

Eta umeak esan zion:

—Bale, joan ahal zara, baina kontuz ibili!

Xabik bide bat aurkitu zuen eta oso pozik jarri zen, baina ez zekien hori hirirako bidea zen, eta horregatik, joan zen begiratzera ea nora zihoan bide hori.

Bide hori hirira zihoala jakin zuenean, Xabi beste umeari esatera joan zen, eta esan zion hori hirirako bidea zela. Oso pozik jarri ziren biak eta elkarrekin joan ziren hirira.

Bidean umea desagertzen hasi zen, gero eta gardenago bihurtzen ari zen. Xabiri arraroa iruditu zitzaion. Bere etxea ikusi zuenean konturatu zen ez zegoela umea. Xabi oso triste jarri zen, baina etxean sartu zenean konturatu zen ume hori bere imajinazioa zela, eta dena berak egin zuela, eta asko poztu zen oso ausarta izan zelako.



UDAKO TALDEA ETA IZURDEA

Marene Karmelo Obieta
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Monika deitzen naiz, eta Bakion bizi den 9 urteko neska bat naiz. Etxean guraso, neba eta nire txakurrarekin bizi naiz.

Bakion lagun asko ditut, eta guztioi itsasoa asko gustatzen zaigu. Ondoren, lagun bakoitzaren deskribapen txikia egingo dizuet:

—Urko, nire neba da eta 6 urte ditu. Batzuetan apur bat bihurria da, baina oso ondo moldatzen naiz berarekin. Urkok *bodyboarda* egiten du normalean, oso dibertigarria iruditzen zaiolako.

—Jon eta Bingen nire lehengusuak dira, eta oporretan daudenean Bakiora etortzen dira nirekin jolastera.

Bingenek normalean *snorkela* egin nahiago izaten du, baina itsasoarekin zer ikusia duten kirol mota asko egiten ditu (*bodyboarda, surfa, padel-surfa...*)



Jonek arrainak harrapatzea gustuko du, eta normalean itsasora bueltatzen ditu txikiak baldin badira.

—Izaro, Iker eta Mar ere udan Bakiora etortzen dira, hiru hauek oso gustuko dute surf egitea.

Nik ere itsasoarekin zerikusia duten kirol guzti horiek egiten ditut, eta ez nuke jakingo zein aukeratu guztien artean. Ze zortea, ezta!

Normalean eguraldi ona egiten duenean hondartzan elkar ikusten dugu guztiok, eta han erabakitzen dugu zer egingo dugun. Udako egun batean *snorkela* egitea erabaki genuen «Itsaso belarriak» hartzeko, hainbat koloretako arrainak eta olagarroak ikusteko eta itsasoko izarrak aurkitzeko.

Egun horretan, uretan sartu ginenean, hotz handia zegoen eta betiko moduan mota askotako arrainak ikusi genituen; Urkok kolore laranja bizia zuen itsasoko izar bat aurkitu zuen, eta oso pozik jarri ginen, ez delako erraza izaten itsasoko izarrak ikustea.

Sakonago joan ginenean izurde talde bat ikusi genuen, hori bai poza! Izurdeak ikusten genuen lehen aldia baitzen, eta oso urduri jarri ginen, oso politak zirelako, baina oso arin alde egin zuten beldurraren beldurrez, ez zeudelako ohituta gizakiak ikusten.

Guk geurera jarraitu genuen, txirlak harrapatzen, arrain txikiak ikusten... Baina bat-batean Bingenek oihukatu egin zuen, eta denok berarengana joan ginen; han izurde txiki bat ikusi genuen sare batean harrapatuta.

Denon artean izurdea laguntzea erabaki genuen; zauri handiak zituela eta gose handia zela konturatu ginenean, guztion artean antolatzen hasi ginen:

—Ni izurdearentzat janari bila joango naiz! —esan zuen Jonek.

—Neu ere zurekin joango naiz —esan nuen nik.

—Gu hemen geldituko gara izurdearen zauriak osatzen —esan zuen Bingenek.

Horrela, denbora tarte bat pasatuta, Jon eta biok izurdearentzako janariarekin bueltatu ginen, izurdea jan ostean, hobetu egin zen, baina zauriek min handia egiten zioten oraindik.

Bat-batean, izurdea hitz egiten hasi zen, eta denok harrituta entzun genuen.

—Niri lagundu nahi badidazue, ur azpian dagoen altxor bat bilatu beharko duzue; bilatzeko begiratu mapa honetan —esan zuen izurde txikiak.

Mapa hartu eta Gaztelugatxeko San Juan alboan dagoen Aketxe irlan ikur handi bat ikusi genuen, eta guztiok hasi ginen altxor horren bila Aketxe irlan. Orduak eta orduak pasatu ostean altxorra aurkitu genuen, baina bazeuden beste pertsona batzuk ere altxorarekin.



Pertsona horiek itsasoko piratak ziren, eta ea zertarako nahi genuen altxor hori galdetu ziguten.

—Zauri handiak dituen izurde bat osatu behar dugu, eta zuek zertarako behar duzue? —galdetu genien piratei.

—Altxor honen barruan dagoen loreak oso fruitu goxoak eta osasungarriak ematen ditu —erantzun zuten piratek.

Gu orduan izurdeaz errukitu ginen, eta fruitu horiek guri emateko eskatu genien, nahiz eta piratak izan, pertsona onak zirela ematen zuten.



—Tori orduan altxorra, zuek guk baino hobeto aprobetxatuko duzue —esan zuten piratek.

—Eskerrik asko —erantzun genuen.

Orduan, guztiok izurdearengana joan ginen. Izurdeari landarearen fruitua jateko esan genion, eta landarearekin pomada bat egin ostean, zaurietan jarri genion.

Izurdea oso arin hobetu zen, eta eskerrak eman ondoren, bere familiarekin bueltatu zen.

Talde osoa oso pozik jarri ginen izurdea guztiz osatu zelako, eta egun eder hori pasatu ostean, etxera bueltatzeko ordua heldu zen.



Egun horretatik aurrera talde osoa lehen baino arduratsuago bihurtu ginen naturarekin; plastiko gutxiago erabiltzen saiatu ginen, hobeto birziklatzen hasi ginen, eta guraso, familia eta lagun guztiak kutsaduraren arriskuaz kontzientziatzen saiatu ginen.

Orain, erosketara joaten garenean paperezko edo oihalezko poltsak eramaten ditugu;

etxean papera, zabor organikoa, kristala, olio eta abar bereizten ditugu, ahal dena birziklatu ahal izateko.

Zaindu gure ingurumena, mundua bat eta bakarra delako!

IKASKIDE BERRIA

Elene Elorriaga Legarreta
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Goiz batean, Abdel izeneko mutil musulman bat agertu zen gelan gure Andrea andereñorekin. Ikaskide guztiok berari begira geratu ginen. Abdel gizajoak aurpegia sutan zeukan lotsaren lotsaz. Abdelek ile kizkurra zuen eta azal kolorea sano-sano iluna.

Ikaskide gehienak txutxu-mutxuka hasi ziren haren fisikoari erreparatuz. Euskaraz piperrik ere ez zekiela zirudien, eta guk «Kaixo, ongi etorri» esan genionean, bera mutu gelditu zen.

Andereñoa Abdel oso deseroso zegoela konturatu zen, eta egun horretan Katixaren ondoko eserlekua hutsik zegoenez, gure ikaskide berria bertan jesartzea proposatu zuen.

Katixak «Kaixo» esan zion Abdeli eskua astinduz, eta honek, burumakur, keinuka erantzun zion. Katixak bihotz formako irudi distiratsua zeukan kamisetan, eta horrek arreta handia deitu zion Abdeli. Katixak, nahi izanez gero, hori ukitzeko adierazi zion mimika eginez. Horixe egin zuen Abdelek, eta jarraian marrazki batean bihotz bat irudikatu zuen letra arraro batzuekin izendatuta.





Eskola eguna bukatzean Katixak den-dena kontatu zion bere amari, eta amak ideia bat bota zion:

—Zergatik ez diozu zure Paula ahizpa txikiaren irudien eta euskarazko alfabetoaren liburua eskaintzen? —esan zion amak—. Horrela, berak bere hizkuntzako hitz arruntak euskarara erraz transkriba ditzake —gaineratu zuen amak.

—Bai! Iupi, iupi!, oso ideia bikaina, amatxo —erantzun zion Katixak.

Hurrengo eskola egunean Abdel eserleku berean jesarri zen, Katixaren ondoko ikaskideak gaixorik zeramalako denboraldi luzea.

Katixak Abdeli liburua eskaini zion, eta Abdeli aurpegia tomate gorri bat baino gorriago jarri zitzaion. Hala ere, gustura onartu zuelakoan zegoen Katixa.

Jolas orduan Abdel bakarrik geratu zen patioko izkina batean, liburuan murgilduta. Gelara bueltan, Katixari eskutik eutsi zion, eta «liburu mila esker» esan zion.

Ondorengo egunetan Katixa eta Abdel askotan keinuka aritzen ziren, baina zerbait eskatu nahi zuenean, objektua liburuan topatu, eta «arkatz mila esker» bezalakoak esaten zituen.

Nahiz eta Katixa oso pozik ibili Abdelekin, beste lagun batzuk ere izan zitzala nahi zuen. Orduan, Katixak pilotan jolasteko baimena eskatzeko modua erakutsi zion Abdeli, eta Abdel arineketan mutilengana joan zen.

Egiaz, Katixa poztu zen mutilengana hurbildu zelako. Horrek gelan integratuago sentiarazi zion. Benetako laguna aurkitu zuelakoan zegoen Katixa, eta harro sentitzen zen egindako lanaz.

Eta kontatu, kontatu, istorio hau bukatu!



ZERTARAKO NAHI DUZU MUGIKOR BAT?

Iria Mateo Ferreiro
Hijas de la Caridad N^a Sra.
de Begoña HLBHIP



Bazen behin mutil bat Oier izenekoa. Egun batean mugikor berri bat irten zen dendetan. Oierrek bere aitari eta amari eskatu zien, baina bere gurasoek ezetz esan zuten, eta berak aurreztu zuen erosteko.

Dirua izan zuenean erosi zuen, baina bi hilabete pasatu ondoren beste mugikor berri bat irten zen gauza berri batekin. Hori ere gertatu zen beste mugikor batzuekin; beti gauza berri bat ekartzen zuten. Oierrek den-denak erosi zituen, bere lagunekin hitz egiteko eta jolasteko.

Baina egun batean, bere lagunak ez zuten berarekin gehiago hitz egin. Gero hilabete bat pasatu zen bere lagunak ikusi gabe, baina hori ez zen gauzarik txarra. Ikasgelan Oier arbelera atera zuten, eta berak ez zekien zer esan. Ez zuen ikasten bere mugikorrarekin egoten zelako egunero, ez zuen ulertzen ingeleza, eta azterketetan beti bost bat ateratzen zuen.

Horrexegatik, egun batean Oier, ikasi ordez, mugikor bat bilatzera joan zen maitasuna emateko eta dena esateko. Ez zuen aurkitu, eta munduan zehar bidaiatu zen hura aurkitzeko. Indiako fabrika batera joan zen eta galdetu zuen ea mugikor hori zegoen, baina esan zioten fabrika horretan ez zegoela. Gero, Oier Txinara joan zen, eta gauza bera gertatu zitzaion. «Mugikor hori lortu behar dut» pentsatu zuen, eta gero argia piztu zitzaion. Mekaniko batengana joan zen eskatzera, baina hori egiteko ez zela kapaza esan zion. Eta hori ez zitzaion gustatu.

Egun hartan Oier pentsatzen ari zen eta hau galdetu zuen bere artean: «Benetan mugikor bat behar dut neure lagunekin egoteko eta ondo ikasteko?». Ez, ez zuen behar mugikor bat horretarako.

Egun horretatik aurrera, Oier gehiago ikasten eta bere lagunekin jolasten hasi zen. Horrela, pixkanaka mugikorra uzten hasi zen, eta hilabete batean hiru egunetan bakarrik erabili zuen. Orduan, konturatu zen ez zuela mugikorra ezertarako behar, eta mugikorra zeukan jendeari Oierrek esaten zion:


«Zertarako nahi duzu mugikorra?». Pertsonak pentsatu ondoren uzten zuten.

Egun batean, Oierren gurasoek esan zioten:

—Oier, nahi duzu mugikor bat zure urtebetetzean? Zure egun berezia da, eta nahi baduzu, mugikorra erosiko dizugu.

Baina Oierrek erantzun zien:

—Zertarako nahi dut mugikorra? Gaur nire lagunekin jolastu eta urtebetetzean ondo pasatu nahi dut. Oierrek ikasbidea ikasi zuen; eta zuk zertarako nahi duzu mugikor bat?



Wig
Kolela
Wig
Kolela
Wig
Kolela
Wig
Kolela
Wig
Kolela
Wig
Kolela



B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



SPERO

Andrea Vasilescu
Maestro Garcia Rivero HLHI

Antzina, zerura heltzeko ez zen ona edo gaiztoa izan behar. Ez zen beti egia esan behar. Zerura heltzeko pasahitz berezi bat behar zen. Pasahitz berezi hori aingeruek eta jainkoak bakarrik ezagutzen zuten. Gizaki bat hil egin baino lehen aingerua etortzen zen galderak egitera, eta galdera guztiak ondo erantzuten bazituen, pasahitza lortuko zuen.

—Aingeru jator hori, zoaz lurrera, eta egin galdera batzuk Japoniako Me-guro auzoan.

—Ondo da Jainkoa! Baina... Oso urrun dago! Ez du balio! Zergatik izan behar dut nik? —kexatu zen aingerua.

—Zoaz, eta bueltatu azkar!

—Ondo da! —erantzun zion aingeruak firme.

Aingerua berehala bere hodeira joan zen, gauzak hartu eta lastozko motxila txiki batean sartu zituen. Jainkoa agurtu eta bidean joan zen.

—Japonia, banoa! —oihukatu zuen aingeruak zerutik.

Lau egun eman zituen Japoniara heltzeko, eta Japoniako auzo txiki hura aurkitzeko. Azkenik, goiz batean heldu egin zen.

—Hau da etxea, lau egun eta gero aurkitu zaitut! —esan zuen aingeruak nekatuta. Etxean baimenik gabe sartu eta etxe osoan hasi zen pertsonaren bila. Berehala konturatu zen etxe hartan pertsona bakarra bizi zela.

—Akemi... Berriro amesten egon behar duzu —esan zion gizonak bere buruari—. Aingeru bat ikusten ari naiz, ez nuen atzo horrenbeste likorerik edan behar...

—Ez da ametsa, ni benetako aingerua naiz. Hona etorri naiz egun bateko bizitza geratzen zaizulako; gero, zerura joateko aukera izango duzu.

Akemi altxatu zen. Bere ile luze eta marroiek aurpegi erdia estaltzen zioten, eta bere oin luzeak eta argalak tente-tente zeuden.

—Nola? Hil egingo naizela? Zer egin dut txarto? —esan zion bere begi japoniarrak ondo irekita.

—Atzoko festan norbaitek zure edarian pozoia jarri zuen. Gertatuko zaizuna nik esango dizut; gutxi barru zorabiatu egingo zara, ospitalean esnatuko zara, eta han argituko dizute zure gorputza intoxikatuta dagoela.

—Inoiz ez diot heriotzari beldurra izan, baina nor izan da? Nork egin dit halako gaiztakeria? —galdetu zuen Akemik.

—Hori ez da nire ardura. Ni hiru galdera egitera etorri naiz, eta hiru galdera horiek ondo erantzuten badituzu, zerura joateko aukera izango duzu.

—Nire amamak kontatu zidan zerura joateko ona izan behar dela.

—Ene, mutiko! Bada, zure amama oker zegoen, Jainko nagusiari horrek berdin dio!

Ordurako Akemi zorabiatuta zegoen. Aingeruak ezin zuenez ezer egin, itxaron egin zuen. Ordu laurden geroago, norbait etxeko atarian agertu zen. Zapatilak kendu zituen eta egongelara sartu zen. Akemi lurrean ikusi, eta berehala, eskuan zeukan erosketa poltsa eskuetatik lurrera jausi zitzaion.

—Akemi! Zer gertatzen zaizu? Esnatu! —esan zion mutilak urduri.

Sakelako telefonoa atera zuen, eta anbulantzia deitu zuen. Anbulantzia berehala iritsi zen.

—Non nago? —galdetu zuen Akemik esnatzean.

Aingerua bere aurrean zegoen, koaderno txiki eta boligrafo bat eskuan, galderak egiteko zain.

—Medikuek esan dute seguruenik bihar hilko zarela. Oraintxe bertan egingo dizkizut galderak, eta lehen esan dizudan bezala, guztiak ondo erantzuten badituzu, zerura heltzeko pasahitza emango dizut.

—Zu, berriro! Ondo da, zure galderak erantzungo ditut, baina oraindik uste dut oso gaztea naizela. 23 urte ditut —erantzun zuen Akemik oso haserre.

—Hori ez da nire errua. Orain zure baimena daukadanez, galdetegiarekin hasiko naiz behingoz.

Aingerua prest zegoenean gelan mediku bat sartu zen. Gizonezko mediku bat zen.

—Berri txar bat emango dizut. Mesedez, ez larritu! —esan zion medikuak bere ahots larriarekin.

—Badakit. Bihar hil egingo naiz, norbaitek bartko edarian pozoia jarri zidan.

—Sentitzen dut —esan zuen medikuak triste—. Oraindik oso gaztea zara hiltzeko, zerbait egin ahalko banu...

—Ondo da.

Medikua gelatik atera zen. «Nola jakin ote du?» pentsatu zuen berehala medikuak; hala ere, medikua bere gauzetara bueltatu zen.

—Azkenik! Jainkoaren mezu bat jaso dut galdetegia arin egiteko esaten —esan zion aingeruak.

—Ondo da, hasi galderekin.

Baina norbaitek berriro eten zuen elkarriketa. Akemi begiratzeara aho zabalik geratu zen. Gizon zahar hura orain dela 23 urte hil zen...

—Aita! —esan zion Akemik begiak malkoz beterik—. Zeu zara, ezta?

—Bai, semetxo, baina dakizunez ni hilda nago, nire arima baino ez da.

—Zer dela eta etorri zara hona?

—Zu nirekin zerura eramateko etorri naiz.

—Itxaron! Lehenengo hiru galdera egin behar dizkiot zerura joan ahal izateko —sartu zen aingerua elkarriketa eteteko.

—Semetxo, konfiantza dut zuegan, ondo erantzun galderei! —esan zion aitak kezkatuta.

—Ondo da! Hasi behingoz galderekin. Nazkatuta nago hainbeste elkarriketa etenaldiez.

—1. galdera: zenbat pertsona baztertu dituzu orain arte?

Isiltasun osoa sortu zen ospitale hartako gelan. Akemi pentsakor gelditu zen.

—Pertsona asko baztertu ditut, baina orain damutu egiten naiz.

—Ondo da, jadanik ezin zara damutu, berandu da eta —erantzun zion aingeruak serio.

Akemiren aitak kezka-aurpegia jarri zuen aingeruaren hitzak entzutean, «zer egingo ote dut nire semetxoa nirekin zerura ez badator? Ez dut gehiago ikusiko» —pentsatu zuen momentu hartan.

—Barkatu, baina ni aire pixka bat hartzera noa —esan zuen aitaren arimak.

—Ondo da, baina ez sartu nik eskatu arte —esan zion aingeruak, baina ordurako jadanik kanpoan zen.

—2. galdera: zure lagunak edo familia diren bezalakoak maite izan dituzu?

—Noski baietz! Ez zait inoiz itxura edo nolakoak diren inporta izan. Nire lagunak badira, atsegin ditudalako da!

—Ondo da! Lehen esan dizut berdin zaizkidala arrazoiak. Egina eginda dago, ezin da ezer egin, ezin zara damutu egin dituzun gauzengatik eta gero aldatu. Hori ezinezkoa da!

Akemik begiak zabal-zabalik zituen, aingeruak esandakoak izutu egin baitzuen. «Ezin duzu ezer aldatu» entzuten zuen Akemik behin eta berriro bere buruan. Orduan, Akemik begiak itxi zituen.

—3. galdera: hiltzeko prest zaude?

Akemik ez zuen erantzuten. Aingeruak esandakoa errepikatu egin zuen, baina oraingoan oihuka esan zion:

—3. galdera: hiltzeko prest zaude?

Hala ere, Akemik ez zuen erantzuten. Aingerua Akemirengana hurbildu zen. Akemi ez zen mugitzen.

—Txantxa bat bada, infernura joango zara!

Oraindik ez zuen erantzuten. Aingeruak sorbaldatik hartu, eta astintzen hasi zen.

—Esnatu! Esnatu!

Aingeruak ez zekien zer egin; nora bidali behar ote zuen aingeruak? Zerura ala infernura?

Bere trastofonoa poltsikotik atera zuen (aingeruaren trastofonoa biribil itxurako mugikor zahar bat da). Jainkoari deitu zion eta lasaitasun osoz gertatutakoa azaldu zion.

—Ai ene! A ze arazoa! Ez dakigu bera nolakoa den! Nora bidali behar ote dugu?

—Barkatu, Jainkoa, ezin izan dut ezer egin. Bi galdera bakarrik erantzun dizkit, eta hirugarren galderan hil egin da —esan zuen aingeruak.

Jainkoa hiru ordu egon zen pentsatzen. Akemiren arima bakarrik zegoen bere kargu, bere gorpua lurperatu behar zuten eta. Hiru ordu horietan Jainkoak Akemiren aitaren arimaren bisita bat izan zuen. Arimak mesedez semea zerura bidaltzeko eskatu zion, baina Jainkoak ezin izan zion erantzun.

Azkenean, Jainkoak sekulako ideia izan zuen. Zeruaz eta infernuaz gain, erdian beste mundu bat sortzea bururatu zitzaion. Spero zen sortu zuen mundu berria. Jainkoak Spero izena jarri zion, latinez esperantza esan nahi baitzuen.

Baina, oraindik arazo bat zegoen. Beste bi munduek bezala, Sperok zaindari bat behar zuen. Hala ere, Jainkoak berehala jakin zuen nor izango zen mundu horren zaindaria. Akemiri galderak egitera joan zen aingerua, hain zuzen. Aingerua izango litzateke Speroren zaindari berria.

Eta horrela geratu da Spero, hildakoek bakarrik ezagutzen duten mundua. Eta Akemi Spero munduko pertsonarik inportanteena izan zen aingeruak horrela izendatu zuelako.



TXIKLE BATEN ISTORIA

Imanol Gaitero del Castillo
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazen behin txikle bat, marrubizkoa. Txikleak hamaika anaia zituen, guztiak marrubizkoak. Txikleak fabrika batetik zetozen kaxa batean. Egun batean, denda batek fabrikakoari deitu zion, txikle horiek nahi omen zituen eta.

Txikleak kanpotik zuria zen, eta barrutik arrosa kolorekoa. Lauki zuzen bat zen, nahiz eta borobila izan nahiago. Fabrikan beste motatako txikleak ere bazeuden. Bat bost gramokoa zen, anaiak bezain loditxo. Bere konposaketa ez zen arrunta, oso berria zen. Ordura arte ez zuten inoiz saldu horrelako txiklerik.

Fabrikakoak esan zion hurrengo egunean edukiko zituela bere dendan.

Egun bat pasatu ondoren dendara heldu zen; dendaria dena prestatzen ari zen bitartean ateko dendan txirrina entzun zen bat-batean. Milaka ume sartu ziren gozokiak erosteko asmoz,

Egunaren bukaeran dendariak kaxa guztiak hutsik zeuzkan, txikle bat gertzen zen bakarrik. Konturatu gabe ume bat dendara sartu zen, eta berak lortu zuen txikle bakarti hori. Dendatik irteterakoan plastikoa apurtu zuen umeak, eta ahora txikleak sartu zuen. Etxera joan bitartean, txikleak murtxikatu zuen. Txikleak zapo-rea galdu zuen, eta jateko ordua zenez, atearen aurrealdean umeak bota zuen.

Txikleak, enplastu eginda, lurrean geratu zen lanpasaren ondoan. Geroago, postaria etxera heldu zen, eta bere zapatilan itsatsi zen txikleak. Kanean gora, kanean behera, gutunak auzokideei ematen pasatu zuen eguna. Eskailera batetik jaisterakoan txikleak zapatilatik askatu zen, eta lorategi batean gelditu zen. Geroago txoritxo batek hartu zuen, eta mokoan eraman zuen.

Hegaz hasi zenean arrano beltz bat ikusi zuen bere atzean; izugarrizko sus-toa hartu eta txiklea jausi zitzaion, estolderia batetik sartuz. Urak txiklea eraman zuen lurrean zehar hondartzara heldu arte. Udako egun polita zenez, hondartza beteta zegoen leku librerik gabe. Ume batek toalla harean jarri zuen, eta txiklea harean ezkutatuta zegoenez haren toallan itsatsi zen.

Geroago, etxean, amak ikusi zuen txiklea toallan, eta umeak botatako txikleaz gogoratu zen. Amak esan zion oso zaila izango zela txiklea toallatik kentzea, eta horregatik, kontu handia eduki behar zuela txikleekin.

Irakaspena: ez bota txikleak lurrera; bestela, bueltatuko zaizu.

IZAR BATEN DISTIRA

Jone Sasia Tato
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Gaua iluna, lasaia, gaiztoa eta baketsua zen. Kaleak jenderik gabe zeuden. Alde Zaharreko kalerik famatuenak ere jende barik ziren. Dena iluntasuna eta isiltasuna zen. Ez zegoen kotxe bakar bat ere, inor ez zela existitzen zirudien, argi guztiak itzalita, soinurik ez, pertsonak inondik ere ez...


Bat-batean, Ikerrek, gazte lotsatiegi batek, begiak zabaldu eta bakartasuna besterik ez zuen inguruan. Ikerrek ez zuen ezer ikusten, ezer entzuten, ezer sentitzen... Bere gorputza hasi zen mugitzen gelditu ezinik. Ikerrek gelditu nahi eta gorputzak ezin erantzun. Oso akituta sentitzen zen, negar guran, hil guran; bakardade ikaragarrian jausi zen eta Ikerrek begiak itxi zituen.



Geroago, Ikerrek begiak ireki, eta atzera betiko munduan zegoen. Ikerrek amesgaiztoetan zegoela uste zuen. Baina ez, egia hutsa zela jabetu zen, bere gus-tukoa ez bazen ere. Hainbeste beldurra zuen sartua, ezen norbaiti esateko nahia sartu baitzitzaion. Besteei kontatuta, amesgaizto bat zela esan zioten. Bere barneko sentimenduak, oster, benetakoa zela esan zion.

Egunak joan eta egunak etorri, gau batean Ikerri ohera joateko ordua heldu zitzaion. Ikerrek ez zuen lokartu nahi; orduan, linterna bat hartu eta oso adi geratu zen inguruko gauzei begira. Linternari pilak agortu eta dena zegoen iluntasunean berriro. Baina bat-batean xingar moduko argi bat piztu zen Ikerren logelan. Izar baten distira zen. Iker altxatu, izarrari jarraitu eta, aurreko egunetan bezala, ez zen Iker, bere gorputza baizik. Izar argitsu horrek kalera eramane zuen mutila. Kaleak berriro ilunak eta isilak ziren, jende barik.

Oraingo honetan Iker ez zen kale batean agertu, zeruan baizik. Oso aske sentitzen zen, bakez betea. Hala ere, nekadura itzuli zen, eta negar guran begiak itxi zituen. Ireki eta gero, bere ohean zen. Ikerrek argi zeukan oraingoan amesgaiztorik ez zela, errealitatea baizik. Egun horretan gertatutakoa ez zion inori esan beldurra zela medio. Ikerrek pentsatzeari ekin zion, eta pentsatzen zebilen bitartean, aurreko egunean gogoratuta, izarra margotu zuen.



Bere ondoan neska bat eseri zen. Neskak Ikerrek margotutako izarrari begiratu eta berak ere ikusten zuela aitortu zion. Mutila ez zen guztiz fidatzen, neskak gauero ikusten zuela zin egin zion, bere gorputza izarraren atzetik zebilela azaldu zion.

Hala ere, Ikerrek ez zeukan konfiantza handirik neskarengan. Horrexegatik, akordio honetara heldu ziren:

«Ez dugu nahi dugun hurbilera,
bota dezagun beldurrak airera,
beti adiera,
inoiz abandonatzera,
baldin bagaude batera,
izarra desagertzeko aukera.»

Orduan, gau hartan geratu ziren argi guztiak piztuta. Ez zirudien izar distira hori bueltatuko zenik. Bat-batean argi guztiak itzali eta izar distira... Han zegoen. Betiko moduan, beren gorputzek izar distirari jarraitzeari ekin zien. Biak, neska eta mutila, indar guztiak elkarturik, izarrari aurre egiten saiatzen ziren, baina distira hori haiek baino askoz indartsuagoa zen. Biak eskutik heldu eta akordioa ozenki oihukatu zuten... Eta hitzak bete ziren.

«Ez dugu nahi dugun hurbilera,
bota dezagun beldurrak airera,
beti adiera,
inoiz abandonatzera,
baldin bagaude batera,
izarra desagertzeko aukera.»

Izarraren distira haurrak baino indartsuagoa bazen ere, elkarrenganako konfiantza hain handia zenez, apurka—apurka izarraren distira desagertzen hasi zen, erabat urtu arte.



HOSTO BATEN ISTORIA

Aner Goldaratzena Bilbao
Deustuko Ikastola IPI

Bazen behin haritz txiki batean zintzilik zegoen hosto txiki bat. Hosto hura ez zen besteak bezalakoa, ezberdina zen, pentsatzeko eta sentitzeko gaitasuna zuen. Egun batean, inoiz ikusitako haize boladarik handienak harrapatu zuen haritz hura, eta gure hosto txikia hegan irten zen ziztu bizian. Hain indartsu eraman zuen, ezen hodeiak baino gorago eraman baitzuen. Haizea baretu zenean, jaisten hasi zen hodeiak baino baxuago egon arte. Handik gauza asko ikusten zituen: etxeak, zelaiak... Baina ez zuen inoiz bere haritza ikusten; kezkutzen hasi zen, laguntza eskean.

Orduan, urrunean argi batzuk ikusi zituen, gero eta handiagoak egiten zirenak; gauza erraldoi bat zen, oso arin mugitzen zena. Beregan joaten ari zela oihuka hasi zitzaion: Kaixo, jauna, hemen nago! —behin eta berriro errepikatzen zuen. Gauza handi horrek ez zion erantzuten, baina ez hori bakarrik, aurretik ere eraman zuen.

Orduan, gure hosto txikia gauza handi horren puntan gelditu zen, itsatsita; bat-batean ahotsak entzuten hasi zen: gizakien ahotsak.

Hostoa asko harritu zen gizakien hizkuntza ulertzen zuelako; hauxe entzun zuen: «Noiz helduko gara Bilbora? Denbora luzea daramagu hegazkinean, ama». Hori entzunda, bi gauza jakin zituen: hegazkin batean zegoela, eta Bilborantz joaten ari zela.

Bidaian zehar beste hosto batzuk ere itsatsi ziren hegazkinaren puntan, bera bezala, baina ezin izan zuen haiekin hitz egin, haiek ez baitzuten gaitasun hori; baina ezustean hau entzun zuen: «Gerrikoak lotu, mesedez, Bilbora iritsi gara».

Lurreratu ostean, beste haize bortitz batek beste hegazkin batera eraman zuen, baina oraingoan puntara ez, barrura baizik. Eta handik entzun zuen Holandarantz zihoala, haize-errotan eta tulipanen herrialderantz.

Bidaia luze baten ondoren gure hostoa Holandara heldu zen. Mutil batek hegazkinetik irtetean bere maleta hostoaren gainean jarri zuen nahi gabe, eta hostoa maletan itsatsita geratu zen. Mutila ibiliaren ibiliaz baserri bateraino heldu zen. Baserria zelai handi eta zabal batean zegoen. Zelai hura errotaz eta lorez beteta zegoen. Mutila baserrira sartzean maleta utzi zuen sarreran hostoarekin batera. Bat-batean

ahots bat entzun zuen, atzerantz begiratu, eta bera bezalako hosto bat, gaitasun bera zeukana, ikusi zuen. Hosto hura sagarrondoko hostoa zen. Hitz eginaren hitz eginaz lagun minak egin ziren, baina arazo bat zegoen, sagarrondoko hostoa baserriko horman zegoen itsatsita, eta gure hostoa, ordea, maletan. Gure hostoak aha-lerin handiak egin zituen baserriko hormaraino heltzeko, bere lagunaren ondoan itsasteko; horren gogotsu desiratu zuen, ezen azkenean lortu egin baitzuen.

Egun batean, ekaitz erraldoi bat heldu zen Holandako zelai bare hartara; bi lagunak haize-erota bateraino eraman zituen. Gauza on bat zegoen eta beste bat txarra. Lehenik, gauza txarra kontatuko dizuet: errotaren haize-orratzetan gelditu ziren, eta hainbeste buelta eman zuten, zorabiatu egin ziren. Eta ona honakoa da: elkarren ondoan jarraitzen zuten; baina azkenean, haizeaz baliatuta haize-orratzetatik jaitea eta lurrera heltzea lortu zuten. Lurrean hilabeteak igaro zituzten, baina beti elkarrekin. Denbora pasata, euriari eta eguzkiari esker gure hostoa ezkur bihurtu zen, eta bere laguna sagar. Orain, fruituak direnez, bueltak ematen mugi daitezke, eta nahi duten lekura joan; baina egun batean, zulo sakon batean geratu ziren harrapaturik, denbora luzez. Hainbeste denbora egon eta gero, sustraiak atera zitzaizkien, baita zurtoina ere. Fruitu bihurtu ziren moduan bi zuhaitz eder bilakatzen hasi ziren, eta zuhaitz guztiz bihurtu zirenean txoriak eta horrelako animaliatxoak hasi ziren haien adarretan bizitzen.

Udaberria heldu zenean lore ederrak atera zitzaizkien biei, gero eta animalia gehiago bizi ziren haien barnean.

Udan fruituak ematen hasi ziren, eta ondoan zegoen baserriko emakumeak egunero batzen zituen, sagarrondokoak marmelada egiteko, eta haritzekoak bere txerriei emateko.

Urteak joan urteak etorri bi lagunak zahartu egin ziren, eta egun batean «plaust!» lurrera erori ziren biak. Zergatik gertatu zen hori? Bada, gizon batek moztu zituelako papera egiteko, bizirik zeudela konturatu gabe. Orduan, bi lagunak hartu eta kamioneta batean sartu zituen paper bihurtzeko. Paper bihurtu ondoren, kutxa batean sartu zituzten; denbora luzez egon ziren kutxa horren barruan, baina egun batean mugitzen hasi zen. Bat-batean gelditu egin zen, eta kutxa ireki egin zen; neskak bat zen margotzeko gogo handiarekin. Orduan, gure paperezko orria hartu, eta margo-tzen hasi zen, polit-polita utzi arte. Amaitzean bere gelako paretan itsatsi zuen; ondoren, bere lagunarekin berdin egin zuen, eta han gelditu ziren betirako, neskak polit hori nola hazten zen ikusten.

Txarra ematen zuen amaiera, amaiera ezin hobe izan zen.



PENTSATZEKO ASKE

Ainhoa Sastre Vázquez
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazen behin herri txiki batean bizi zen Maite deituriko neskatila txiki bat. Maiteri izugarri gustatzen zitzaion aitona gauero ipuinak asmatzea. Hori dela eta, egunero bere aitona ipuinak kontatzen zizkion.


Maiteren urtebetetzearen aurreko egunean aitona berandu heldu zen, ez baitzekien zein opari egin bere urtebetetzean. Maite kezkatuta zegoen aitona ez zelako iristen, baina azkenengo momentuan aitona ailegatu zen.

Maite pozaren pozez jarri zen, atea entzutean, pentsatu barik, ohetik ziztu bizian altxatu zen, eta berrangana korrika joan zen bersarkatzera.

—Aitona, maitea, zein ipuin kontatuko didazu? —galdetu zion Maitek.

—Bada, ipuina izango da... «Pentsatzeko aske» —erantzun zion aitona—. Hasiko naiz —esan zuen aitona ipuina pentsatzen zuen bitartean.

«Bazen behin herri batean bizi zen Aitor izeneko mutiko bat. Mutilari sokasaltoan eta panpinetan jolastea pilo bat gustatzen zitzaion. Goizero, Aitor ikastolara joaten zenean, beste ume batzuek berari barre egiten zioten nesken jolasak asko gustatzen zitzaizkiolako. Horren ondorioz Aitor gaizki sentitzen zen umeek ez baitzuten ulertzen.



Ikastola amaitu ondoren, Aitor zuzen-zuzen etxera joaten zen, eta ez zuen inorekin hitz egin nahi izaten. Bere logelan geratzen zen negarrez».

—Aitona, Aitorri gertatzen zaionak pena ematen dit. Ez dut ulertzen zergatik hori egiten dioten —esan zuen Maitek.

—Itxaron, Maite, ez duzu kezkatu behar. Laster dena ulertuko duzu —esan zuen aitonak, eta jarraitu zuen ipuina kontatzen.

«Gertatutakoarekin Aitorrek erabaki zuen nesken jolasetan ez jolastea berriro, eta bai, ordea, futbolean. Modu horretan inork ez zion ezer esango.

Asteak aurrera egin ahala, Aitorrek triste jarraitzen zuen, ez zuelako egiten berak nahi zuena. Eserita geratu zen ikusten besteak nola jolasten ziren, eta orduan konturatu zen neskatala bat zegoela. Neskatala horrek nahi zuena egiten zuen, hau da, futbolean jolasten ari zen.

Aitor hasi zen bere ingurumenari begiratzen, eta ikusi zuen mutiko bat panpinetan jolasten ari zela.

Etxera iristean, Aitor gogoratu zen jolasketarako orduan ikusitakoaz, eta esan zion bere buruari: «Zergatik ez dut egiten nahi dudana zoriontsua izateko? Besteei berdin zaie niri zer gustatzen zaidan edo zer egiten dudana. Zergatik jokatzen dut horrela?»

Hurrengo egunean, jolasketarako orduan neskekin joan zen jolastera. Oso ondo pasatu zuen eta bizirik sentitu zen.

Hortik aurrera, leku guztietan egiten zuen berak nahi zuena aske sentitzeko.»

—Aitona, aitona! Badakit zer irakatsi nahi didazun! —Maitek esan zuen ahots ozenez.

—Zer, Maite? —galdetu zion aitonak.

—Bada, niri gustatzen zait futbolean jolastea, eta zuk nahi duzu ni zoriontsua izatea, eta hori gertatzeko, futbolean jolasten jarraitu behar dut, nahiz eta besteak nirekin konforme egon ez —esan zuen Maitek.

—Bai, Maite, hori da —erantzun zion aitonak—. Bai, Maite, ordua da. Etxera bueltatu behar dut —gehitu zuen aitonak.

—Bale, aitona, baina bihar etorri berriro nire urtebetetzea ospatzera, eta esango dizut zenbat gol sartu dudana —esan zuen Maitek.

—Bale, bihotza —agurtu zuen aitonak.



GAUEKO AMESGAIZTOA

Peio Elorriaga Legarreta
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Etxean zeuden denak. Amak afaltzera deitu zien, baina Gorka eta Maialen ez ziren agertu, Gorkaren logelan eztabaidan zeuden eta. Ez zen kontu berezia, betiko istorioa baizik.

—Alde hemendik, tuntun hori; ez ikutu nire jostailuak —esan zuen Gorkak oihuka.



—Neuk ere zure play-mobilarekin jolastu nahi dut! Bestela, amari esango diot —negar batean oihukatu zuen Maialenek.

Oihuak gero eta nabarmenagoak ziren, eta ama logelan agertu zen, haserre.

—Nahikoa da! Egun guztia daramazue katua eta txakurra bezala. Badakizue guretzat zein garrantzi handia duen elkar errespetatzeak eta gauzak partekatzeak —esan zien amak.

Gurasoentzako bizikidetza premiazko kontua zen, eta Gorka eta Maialen oinarri horien arabera hezitzen saiatzen ziren.

Ama hain zegoen haserre, bakoitza bere logelara afaldu gabe agindu baitzi-tuen. Gorkak, amorru bizian, bere arreba gabe bizi nahiago zukeela garrasi egin zuen.

—Nahiago nuke nire arima eman, nire arreba petralarekin egon baino —oihukatu zuen Gorkak.

Gaua heldu zen, eta Gorkaren logelak inoiz baino ilunagoa zirudien; ez zen zaratarik entzuten, bere arnas estua baino ez. Ausarta zirudien arren, Gorka beldurra sentitzen hasita zegoen, eta peluxezko super heroi bat estutu zuen bere indar guztiarekin.

Bat-batean sekulako iluntasuna eta isiltasuna azaldu ziren, eta Gorka lo sakon batean barneratu zen. Lotarako bidaia honetan Gorkak arrapaladan txi-rristako maldatxo bat zeharkatu zuen, eta bukaeran jostailuz gainezka zegoen ez-ohiko logela erraldoi batera heldu zen.


Hasieran, Gorka, emozionatuta, saltoka aritu zen. Bere lagunei deika hasi zen, baina inork ez zuen erantzuten; gero, Maialeni deitu zion, eta ezer ere ez; bere ahotsaren oihartzuna baino ez zen nabarmentzen.

Ametsetako logelako atera abiatu zen, baina atea itxita zegoen, ezin zuen hori zabaldu. Leihoetara hurbildu nahi zuen, baina horiek altuegi zeuden. Orain-goan garrasika hasi zen, eta une hartan peluxe arraro bat agertu zitzaion, eta hauxe esan zion:

—Zure arima saldu duzunez, jostailuz saritua izan zara; zure lagunen eta, bereziki, zure arrebaren konpainia, ordea, lapurtu dizute.

Orduan, Gorka konturatu zen nolako ergelkeria egin zuen. Dardarka eta negarrez hasi zen, txirristaren ertz batean makurtuta. Barkamena errukiz beterik eskatzen zuen, eta gero eta ahulago sentitzen zen.

Txirristatik gora abiatzen saiatu arren, bere makaltasunak aldapan behera itzularazten zuen, behin eta berriro.



Saialdi batean buruz behera geratu zen, buruan kolpe galanta hartuta. Ez zuen ezer ikusten, dena ilun zegoen; ez zuen ezer entzuten, dena isilik zegoen; ez zuen ezer sentitzen, dena lausotuta zegoen. Lo sakonean zegoen berriro ere.

Goiza heldu zen, eta Gorka bere betiko logelan esnatu zen. Korrika batean bere arrebaren logelara hurbildu zen; mantaren alde batetik tira egin zion, eta tira bestetik ere, baina Maialen ez zegoen mantaren azpian.

Ikaratuta etxeko beste egongeletara joan zen arineketan. Ez zuen inor aurkitu. Izugarrizko buruko mina zeukan, eta zorabiatuta sentitzen zen.

Ordubete inguru estu pasatu ondoren, etxeko ate nagusiko giltzen zarata entzun zuen. aita, ama eta Maialen zetozen.

—Non egon zarete? —galdetu zien Gorkak—. Beldurraren beldurrez.

—Lasai, laztana. Egun zoragarria atera da, eta zu lo sakonean zeundenez, paseo laburra ematera atera gara —esan zuen amak.

Gorkak ez zekien zer esan.

—Aizu, non hartu duzu bekokiko kolpe hori? —galdetu zion Maialenek.

Gorka pentsakor gelditu zen zer kontatu jakin gabe; bezperako ametsa zuen buruan. Bat-batean aurpegia irribarrez piztu zitzaion, eta besarkada erraldoi batez gurasoak eta arreba bildu zituen.

—Akaso, ohetik jausiko nintzen, eta bekokia minduko nuen —erdi barrezka erantzun zuen Gorkak.

Eta amestu, amestu
kondaira hau sinistu.





C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)




HITZIK EZ

Maidar Martínez de la Hidalga Grande
Solokoetxe BHI

Zur eta lur. Ez dakit zer esan, ez nuen espero. Nire aurpegiaren espresioa ikustean korrika alde egin du gelatik, eta bere gelan sartu da, atea danbateko batez itxiz. Negar zotinak entzun ditzaket etzanda nagoen ohetik. Ahoz gora nago sabaira begira zer egin jakin gabe. Milaka gauza pasatzen ari zaizkit burutik oraintxe bertan; batez ere, nire semearen haurtzaroko momentuak. Ez dut inoiz ezer nabaritu, ezta keinu bat ere ez.

Hausnarketan ibili naiz arratsalde osoa, erlojuari erreparatu gabe. Bat-batean gaueko hamarrak zirela ohartu eta salto batez altxatu naiz ohetik. Sukalderantz noala, Martinen logelako ateak oraindik itxita jarraitzen duela konturatu naiz, baina oraingoan ez da ezer entzuten. Ate aurrean geratu naiz izoztuta, mugitu ezinik. Jo ala ez jo. Azkenean, atea atzean utzi eta sukaldean sartu naiz. Mango bat jan, eguerdiko harrikoa bukatu, eta biharko babarrunak beratzen utzi ditut. Ohean pentsatzen jarraitu dut. Egunean zehar, jasandako angustia bera sentitu dut, zer egin jakiteko ezintasuna.



Biharamunean, liburua gainean dudala esnatu naiz, harekin lo geratu bainintzen. Gosaria prestatu eta Martinen gelan sartu naiz bera esnatzeko asmoz.

Hala ere, ez dut bertan inor topatu. Larrituta, telefonoa hartu, eta bere izeko Miriani deitu diot. Ideiarik ere ez. Beraz, institutura deitzea erabaki dut. «Bai, hemen dago, liburutegian ikasten» esan dit idazkariak. Nire ustean, ikasten baino, hausnartzen dabil, nigandik ihesi.

Eguerdian ere ez da agertu, lagun baten etxean geratu da bazkaltzen, arratsalde osoa eskolako lan bat egin behar dutela, aitzakia gisa. Nigandik urrun egon nahi duela guztiz onartuta, Miriami bere etxean Martini lo egiten uzteko eskatu diot. Horrela, denbora gehiago emango diot neure buruari dena sakonki aztertzeke.

Hasieratik ezinezkoa iruditu zait dena, surrealista. Hala ere, denbora aurre-ra joan ahala, bere lekuan jarrita, enpatia izaten saiatu naiz. Zaila izan behar du berarentzat, oso. Batez ere, besteek beraren gainean duten irudia erabat aldatuko baita. Horrek kezkatzen nau gehien.

Entzun izan ditut horrelako kasuak irratian eta telebistan, baina gauza ezberdinak dira kanpokoen kasuak eta norberarenak. Beti esan ohi da: «maitatuz gero, onartu beharra dago, babestu», baina ez dut inoiz imajinatu neure burua egoera horretan.

Beti jo izan dut neure burua ezkertiarizat, baina, gaur, inoiz ez bezala, zailantzan jartzen dut hori. Suposatzen dut denok garela hipokritak nolabait. Nik ez dut ezer «desberdinen» aurka; badakit, bai, esandakoa nahiko kontserbadorea da, baina nire konfort egoeratik kanpo nago erabat. Jada ez dakit zer pentsatu nire buruaz.

Gaua da dagoeneko, eta bakarrik nago etxean. Ez dago Martin, berarekiko harremana nola konpondu pentsatzen nabil behin eta berriz. Ohera joan, begiak itxi eta berehala hartu nau loak. Bat-batean esnatu nau iratzargailuak goizeko 7:30ean. Jantzi, gosalduta eta Martini deitu diot, nola dagoen eta gaua izekoarekin nola igaro duen galdetzeko, baina ez du telefonoa hartu.

Pare bat egunez hausnarketa egin ondoren, WhatsApp mezu bat bidaltzea erabaki dut:

«Kaixo, Martin, egun on:

Badakit ez duzula nirekin hitz egin nahi momentu honetan, baina zerbait esan beharra dut. Nire seme-alaba bakarra zara, eta gainera, faboritua. Asko maite zaitut; autokritika luzearen ostean esan behar dizut babestuko zaitudala. Aldaketa honek ez du esan nahi zurekin harremana galduko dudarik, agian, aldatu bai, baina ziur onerako izango dela, maitea. Zuk nirekin konfiantza osoz hitz egitea nahi dut, nirekin eroso egotea, batez ere. Badakit zaila izango zaizula, baina zurekin egongo naiz beharko nauzun momentu oro. Ez ahaztu inoiz hori.


Beste gauza bat ere esan nahiko nizuke. Berdin du besteek zuri buruz zer pentsatzen duten, zu zeure buruarekin eroso egotea da garrantzitsuena. Egia esan, denbora pixka bat behar izango dut nik neure burua informatzeko, baina ahalegin guztiak egingo ditut zure bizitzako etapa honetan dena ondo atera dadin.

Badakit orain ez duzula nirekin hitz egin nahi, eta oso ondo ulertzen dut; nik ez dakit zer egingo nukeen nire amari neska sentitzen naizela esatean erantzunik jasoko ez banu. Oso ausarta zara, laztana, eta nik zure erabaki guztietan babestuko zaitudala jakitea nahi dut.

Asko maite zaitut, eta espero dut ni barkatu ahal izatea.»

Dardarka ditut eskuak momentu honetan, baita malkoak begietan ere, baina mezua berehala bidali dut. Azkenik, goizeko 11:30ean jaso dut nire alabaren erantzuna:

«Eskerrik asko, ama, benetan. Gero hitz egingo dugu; maite zaitut.»



FOKA PENAGARRIA

Uxue Goiri Matesanz
Kirikiño Ikastola HLBHIP

2017ko maiatzaren 7a, zapatua

Emma deitzen naiz, 17 urte ditut, ile luzea eta marroia daukat, intxaurren kolorekoa, begi berdeak, oliba biren antzekoak, aho txikia, sudurra bezalakoa; eta nire pisua, jendeak garrantzi handia ematen dion hori, 17 urteko neskek daukaten pisuaren mediatik gora, hau da, potolo nago; nahikotxo. Eta amodiozko liburuak irakurtzeak, nire arazotik ihes egiten laguntzen omen zidanak, ez dit laguntzen, irakurtzen ditudan liburu guztiak berdinak baitira: matxistak eta irrealak. Nik hori banekien, baina ez zitzaidan gustatzen, noski. Orain dela gutxi konturatu nintzen amodiozko liburuetan eta pelikuletan ez zegoela potolorik; nola izan ahal da hori munduan pisu guztietako pertsonak baldin badaude? Nik jakin banekien, baina ez nuen onartu nahi: potoloek ez zieten erosleei atentzioa ematen. Orain galdetzen diot neure buruari: «hori horrela izango al da bizitza errealean?»



2017ko maiatzaren 8a, domeka

Hurrengo goizean esnatu nintzen eta gauzak hobeto ikusten nituen, argiago. Prestatzen ari nintzen nire aitona eta amona etxera bazkaltzera zetozelako. Prakak jantzi eta jarraian txirrina jo zuen norbaitek, espero nuen moduan aitona eta amona ziren. Eskailerak jaistera nindoanean, amak atea zabaltu zuen, eta haiekin hitz egiten hasi zen. Haserre zegoen, baina ez nekien zergatik; horregatik hurbildu nintzen hobeto entzuteko, eta ohartu nintzen amonak zeozer zeramala eskuan, eta amari haxe xuxurlatu zion belarrira: «Emmari eman hau eta bi astetan politago egongo da». AP jartzen zuen kutxan. Logelara igotzera nindoanean interneten bilatzera AP zer zen. Amak aitona eta amona bota zituen etxetik.

Ez, ez da posible! Pilulak ziren, argaltzeko pilulak!. «Txarra al da potoloa izatea?» pentsatu nuen nire barnerako. Arnasa hartzea gero eta gehiago kostatzen zitzaidan minutuek aurrera egin ahala. «Guztiek horrela pentsatzen al zuten?». Sukaldera jaistean, eta ama negarrez ikustean, bihotza apurtu zitzaidan, besarkatu ginen, eta horrekin nahikoa izan zen, baina biek genekien ez zela betiko horrela izango.

2017ko maiatzaren 9a, astelehena

Klasera joateko ordua heldu zen, pentsatuko duzue nire kideek txarto tratatzen nautela, eta horrela da gutxi gorabehera, baina lasai, ez nago bakarrik, ondo tratatzen nauten lagunak ditut, edo hori uste nuen nik. Minigona bat jartzea erabaki nuen, oso ondo ikusten nuelako neure burua gonarekin, baina hori ez zen gaia, beroa egiten zuenez gero, media barik joatea erabaki nuen. Hanka potoloak dauzkat, estetikoki ez omen da oso polita geratzen, edo hori esan zidaten ikaskideek. Klasean sartzerakoan guztiak begira geratu zitzaizkidan, berria izango banintz bezala. Baina ez zitzaien hainbesterako iruditu. Bat barrezka hasi zenez, pertsona hori beste pertsonak barrezka eta gauza mingarriak esaten hasteko bidea izan zen, nola ez. Ez nekien zer egin, komunera joan negar egitera, etxera bueltatu, korrika batean handik irten... Horregatik erabaki nuen hori egiteak ez zuela ezer hobetuko, kontrakoa baizik; orduan, nire lekuan jesarri nintzen, barrezka zebilen lagun baten ondoan. Hori ikusita, hobeto pentsatu egin beharko dut nortzuk diren benetako lagunak. Kostatu egingo zait, baina noiz egin dut nik zeozer erraza nire bizitzan?

2017ko maiatzaren 10a, martitzena

Klasera heldu nintzen, mutiko bat atean zegoen norbaiten bila, bere ondotik igarotzean nire bila zegoela esan zidan. Harrituta geratu nintzen, baina haren aurrean ez nuen hori transmititu, egia esan, mutikoa guapoa zen, baina hori ez ezik, lelo galanta ere bazen. Baina nik haren musu bat nahi nuen bakarrik, 17 urte nituen, eta nire lagun guztiak musu bat emana zuten, eta ea nik bat eman nahi nuen; zirudienez, mutilak ere nahi zuen, baina ez nire arrazoi berdinegatik. Nahiko leloa zen nire arrazoa, baina ez zuen inor minduko; harenak, berriz, bai. Musua eman eta jarraian barrezka hasi zen, ezkutatuta zeuden haren lagun guztiak bezala. Momentu horretan gorri-gorri jarri nintzen. Txarrena izan zen tipo horrekin izan zela nire lehenengo musua. Oso txarto sentitu nintzen, baina os-

tean gertatu zitzaidana okerrago izan zen, hortik aurrera «foka penagarria» izango bainintzen, badakit, oso originala. Egia esanda, ez nuen gutxiago espero.

2017ko maiatzaren 11, eguaztena

Gaur unibertsitatean sartzeko inskripzioa zabalduko da; horregatik, guztiek gai berdinari buruz hitz egiten dute, ez nau asko harritzen kritikatzten ninduten pertsonak unibertsitatean joan nahi ez izateak, selektibitatea nahiko eskas gainditu baitute. Beste batzuek, hori ere ez. Ez dut esaten tontoak direnik, ezta antzekoak direnik ere, baina egunak pasatzen badituzu beste baten bizitza zailtzen eta ikasten ez dena egiten, ezin da gehiago espero haiengandik. Baina hemen ez da hori gaia, nire «blog-a» denez, nitaz hitz egingo dut. Ni, inor ez molestatzeaz eta ikasten egoteaz gain, oso bizkorra naiz. Horregatik, sekulako nota atera nuen selektibitatean, nahi nuena ikasteko aukera daukat. Eta berdin didate guztiek, nire «lagunek», ikaskideek, aitonak eta amonak. Nire helburua orain psikologia ikastea da, duda barik, txarto pasatzen dutenei laguntzeko.

Hiru urte geroago

Ikasketak hasi nituen, noski, eta oso pozik bizi naiz orain, nire iraganeko bizitzatik urrun, jende horrengandik guztiarengandik urrun. Bizitza berria dut, eta topera gozatzen dut, lagun berriak egin ditut, benetako lagunak, nire pisua inporta ez zaienak, eta niri, egia esanda, ere ez. Nire gorputza maitatzen ikasi dut. Nik naizen pertsona maitatzen ikasi dut. Eta ez nago ziur, baina ikaskide baten etxearen ondotik pasatu nintzen aurreko egunean, eta han ikusi nuen, atarian jesarrita, ezer egin gabe, jendeari begira, eta harrigarria bazen ere, pentsatzen ari zen! Nik uste dut bere bizitzarekin zer egingo zuen pentsatzen ari zela, damututa ikusten zitzaion eta. Orain galdetzen dut neure artean nola amaituko duten, nolakoak izango diren haien bizitzak hamar edo hogeit hamar urte barru?

Baina hau ez da gaia, berriz ere, nire ustez, honekin ikasi behar duzuen da, zuen gorputza zuek maitatzea eta ausartak izatea. Ez errenditu, edo saiatu, bai ala bai; hau da gaia, hau da helburua, lortu behar duzuen, eta noski, ez zaildu inoren bizitza.

EMMA, HARRO DAGOEN KLASEKO FOKA PENAGARRIA





Ainhua Arzuaga Andrío
Ikasbide HLBHIP

Khaled dut izena, eta sei urte ditut. Alepon bizi naiz, Siriako hiri batean. Jaio nintzenetik guda baten erdian bizi naiz; hori dela eta, batzuetan gose handia izaten dut, baina janari askorik ez dagoenez, aguantatu eta beste gauzei buruz pentsatu behar izaten dut. Gurasoek esaten dute Alepo guda baino lehen hiri polita eta baketsua zela. Ez naiz inoiz Alepotik irten. Ez dakit nolakoak

diren munduko beste puntako herrialdeak, ezta umeak ere. Nagusitan bidaiatzea gustatuko litzaidake beste herrialdeak ikusteko.

—Khaled, presta ezazu zure maleta, Europa-
ra oporretan joango gara eta —agindu zidan amak.

—Nola oporretan? Europara gainera?
—erantzun nion amari oso harrituta.

—Bai, bihar goizean joango gara, eta ez
gu bakarrik, amona ere etorriko da gurekin —azaldu zidan amak.

—Alaa, ama! Zelako zortea gurea!

Egia esanda, opor hauek oso ondo egongo direla dirudite, baina aitak esan
dit Europa gustatzen bazaigu, agian geratuko garela han bizitzen, eta nik hori ez
dut nahi lagunak ez galtzeko.

Hurrengo egunean, amak goizeko bostetan esnatu ninduen, taxia hartu
behar genuelako. Oso urduri nengoen, baina aldi berean emozionatuta, Europa-
ra joango ginen. Eskolan ikasi ditut kontinenteak, eta orain herrialdeak ikasten ari
gara. Grezia izan da ikasi dudak azken herrialdea. Hango hondartza politak eta
historia ikasi ditugu. Greziara joan nahiko nuke.

Bat-batean, taxia gelditu zen eta landa baten erdian utzi gintuen.

—Heldu gara —esan zuen taxistak.

—Ama, ama! Uste dut itsasontzia ez dugula hartuko, ez dut itsasorik ikus-
ten eta —esan nion amari kezkatuta taxia joan eta gero.

—Khaled, lasai egon zaitez. Lehenengoz, oinez joan beharko dugu. Bidaia
luze bat izango da, baina azkenean merezi duela konturatuko zara. Uda Europan
igaroko dugu. Ez du horrek oso itxura onik, ala? —lasaitu zidan amak.

—Bai, ama, baina badakizu niri oinez joatea kostatzen zaidala asko neka-
tzen naizelako —erantzun nion amari pixka bat haserre.

—Lasaitu, Khaled, guztia ondo aterako da eta.

Gero eta gehiago nekatzen ari nintzen, maletarekin oinez egun guztia eman
genuen, jan gabe, ur apur bat edaten bakarrik. Eguna iluntzen ari zen, eta ohera-
tzerako ordua jada pasatu genuen, logurak jotan nengoen, aitak ni hartu ninduen,
eta bere besoetan loak hartuta geratu nintzen konturatu gabe.

Bigarren eguna askoz hobea izan zen. Lehenengo, go-
saltzeko txokolatezko gaileta goxo-goxoak jan genituen fami-
liako guztiek. Aita izugarritzko chefa da, eta gaileta horiek berak
prestatutakoak ziren. Nire ustez, munduko hoberenak dira.

Zoritzarrez, bigarren eguna oinez ere eman genuen, eta
horrela astebate. Europarantz. Beste familia batzuk topatu geni-
tuen bidean. Niri gehien gustatzen zitzaidan jolasa zen imajina-
tzea lasterketako kotxeen modukoak ginela. Amona eta biok ibiltzen ari ginenean
beste norbait topatzen bagenuen, azkar ibiltzen hasten ginen haiek urrun utzi arte.
Hori lortzen genuenean, gure abestia abesten genuen, ahalik eta altuen, atzean
utzitakoek entzuteko moduan, baina ez ikusteko. Nire amona superra da.

Arratsaldean leku arraro batera heldu ginen; herri baten tamaina zuen,
baina etxeak egon arren, mila kanpin-denda zeuden. Han bizpahiru egunetan lo
egingo genuela azaldu zidaten gurasoek, eta niri ideia bikaina iruditu zitzaidan.



Txikitatik kanpin-denda batean lo egin nahi izan dut, baina ezin izan dut gurasoei natura asko gustatzen ez baitzaie. Aita, lehen esan dudana moduan, chefa da, eta sukalde on bat ez dagoen lekuan janari txarto prestatuta dagoela esaten du; amari ez zaio natura asko gustatzen, medikua da, eta gainera, zomorro arriskutsu ugari daudela esaten du. Kaka zaharra!

—Gaur egun handia da! Bai, egun handia! —oihukatzen hasi nintzen esnatutakoan—. Itsasontzia hartuko dugu, eta... Europara joango gara! Lupi!

—Khaled, mesedez, baxuago hitz egin ezazu edo ama eta amona esnatuko dituzu —purrustadaka hasi zen aita—. Hartu gaileta pare bat, eta bueltatu zaitez ohera.

—Bale.

* * *

Itsasontzian sartu baino lehen amak agindu batzuk eman zizkidan:

—Khaled, itsasontzira sartzerakoan, egon zaitez isilik eta formal, eta dau-den gizonei kasu egin.

—Noski, ama.

Desilusio handia hartu nuen itsasontzia ikusi nuenean. Pentsatzen nuen itsasontzi polit batean bidaiatuko genuela, baina itsasontzi txiki batean pertsona saldo handia zegoen, aldiz. Guztiok salbamendu-jaka jantzita geneukan, eta horrenbeste jende zegoenez, amaren gainean egon behar izan nuen, txikia nintzela esaten baitzuten. Gizonek hori esan zutenean asko haserretu nintzen, eta erantzun nahi izan nien, baina momentu hartan aitak ahoan jarri zidan bere eskua eta ezin izan nuen ezer esan. Ni txikia, baina lotsagabea, sei urtekoa.

—Lau-begi! —oihukatu zuten ontziaren beste puntatik.

Ai ama, nire eskolako bi mutil dira, anaiak eta bikiak aldi berean. Ez dira oso atseginak, eta beti egoten dira nire kontura barre egiten betaurrekoak erabiltzen ditudalako. Eta hori gutxi balitz, beste anaia handiago bat dute, 10 urtekoa. Egun batean, bikiek ni iraindu ninduten eta horrenbeste haserretu nintzen, biak jotzen hasi nintzen, eta izugarrizko borroka hasi zen. Momentu hartan, Ali, bere anaia handia, etorri zen eta ni jotzen hasi zen bere lagunekin; izugarrizko mina egin zidaten, baita betaurrekoak apurtu ere.

—Haurtxo baten modukoa zara orain amaren besoetan? —esan zuen Mohammedek, bikietatik altuenak.

—Eta zu, zer? Tontolapiko hutsa? —erantzun nien oso haserre.

—Khaled! Lo egiten has zaitez edo bihar gailetak jan orde, babarrunak gosalduko dituzu! Oso ondo dakizu besteak zu baino hobeto tratatu behar dituzula —purrustadaka esan zidan amak.

—Babarrunak ez, mesedez...

—Bada, hurrengoan pentsa ezazu zer esango duzun esan baino lehenago.

—Baina haiek hasi dira.

—Khaled!

—Bai, ama.

Lo egiteko amonak istorio batzuk kontatzea dut gustuko. Hainbeste istorio kontatu didanez, ia istorio guztiak dakizkit, eta hauxe horrela hasi zen:

«Duela 25 urte zure gurasoek ume polit-polit bat eduki zuten, Lina deitu zioten. Oso neskaxa jatorra eta arduratsua zen. Baina, Alepon guda hasi zenean alde egitea erabaki zuen, gu gauden itsasontzi moduko bat hartu zuen, Europara joan eta ez zen bueltatu. Bere itsasontzia apurtu zen itsasoaren erdian, eta ez zen inor bizirik irten. Gurasoek berri txarra jakin zutenean oso triste geratu ziren, eta hiru hilabetez ez ziren etxetik irten. Lau urte geroago, horren goibel jarraitzen zuten, haurtxo berri bat edukitzea erabaki baitzuten, eta Khaled izena jarri zioten, *betirako* esan nahi duena. Lina haiekin beti egongo dela gogoratzeko».

—Benetan? Bai istorio tristea gurasoena! Eta ez dira beldur beren alaba hil zen ontzi berdinean bidaiatzeagatik? —galdetu nion amonari nire zalantza guztiak argitzeko.

—Bada... Beno hasieran pixka bat kezkatuta zeuden, baina denborarekin pasatu egin zitzairen.

Nahiko erraz lokartu nintzen, horrenbeste ibili izanak oso nekatuta egotea eragin zidalako; izan ere, oso erraz esnatu nintzen gauerdian ere. Goseak jota nengo, eta txokolatezko gaileta batzuk hartzera joan nintzen ezkutuan. Amaren motxilan gordeta zeuden, eta hartzea nahiko zaila zen ama ohartu gabe. Azkenean, hartu nituen, eta gailetak jan ondoren amonarekin bueltatu nintzen. Ezin nuen lorik egin, eta momentu hartan gertatu zen inoiz ahaztuko ez dudana gauza bat.

—Laguntza! Laguntza! —ontziko jendea ari zen garrasika.

—Mesedez, norbaitek nire umea har dezala, ni ito egingo naizelak... —moztu zen momentu hartan esaldia.

Ontzia urpetzen ari zen, eta Linari, nire arrebari, gertatu zitzaiona gogoratu nuen momentu batez, eta ez nuen nahi niri gauza bera gertatzea. Orduan, gurasoak eta amona esnatzea erabaki nuen; bestela, ito egingo ziren.

—Ama, aita, amona esnatu, mesedez! —oso urduri nengo, oihuka—. Mesedez, esnatu! —eta justu momentu hartan amona esnatu zen. Zer gertatzen zen ikusitakoan, gurasoak esnatzen lagundu zidan, eta lortu genuen. Salbamendu jaka jantzita neukan, eta ondo lotuta zegoela egiaztatu nuen.

—Bota, Khaled, bota! —agindu zidan amak. Urrunean lehorra ikusten zen, eta ni igerilari trebea naizenez, orduan amari kasu egin eta igeriketan hasi nintzen.

Ikusten zen lurra Grezia zen, baina Greziara heldu baino lehen, itsasontzi batek salbatu gintuen. Sorpresa handia izan zen, eta liluratuta geratu nintzen geroago. Boluntarioak zeuden itsasontzian guri laguntzen. Bai pertsona jatorrak.


—Umeak eta emakumeak lehenengo! —zioen boluntario batek. Amona, ama eta ni elkarrekin pasatu ginen. Mantak eta janaria banatzen ari ziren, geure janaria, txokolatezko gailetak... Dena galdu genuen. Aita, berriz, gizonekin pasatu zen eta neskaxa batek manta bero bat eman zion.

—Tori —esan zion neskaxak aitari, baina neskak burua altxatu zuenean liluratuta geratu zen, bere aita zen eta. Neskaxa hori Lina zen.

Europara heldu ginen, eta gustatu zitzaidanez, hemen bizitzen jarraitzen dugu Linarekin. Orain bai familia zoriontsua gurea! Hau nire istorioa da, errefuxiatu bat izan nintzen. Esperientzia gogorra bai, baina Europa eta Lina ikustean esperantzaz bete nintzen, eta zain nago berriro noiz bidaiatuko dugun.

JAIOTZEAN BANATUAK

Sara Iglesias Montañez
Ikasbide HLBHIP



Gau hartan, Bilboko ospitalean jaiotze asko egon ziren; baina zehazki batek garrantzi handia izan zuen gau hartan.
—Badaude! —esan zuen medikuak.

Aitak ez zuen sinesten, guztia oso txarto joan zen gau hartan, eta berak ia-ia galdu zuen esperantza. Bere alabak bizirik ateratzea lortu zutela egiaztatu ondoren, bere emakumea ikusi behar zuen, baita eskerrak eman ere.

—Nire emaztea ikusi behar dut! —hasi zen gizona oihuka. Inork ez zion kasurik egiten. 20 minutu pasatu eta gero, erizain bat agertu zen gizonari laguntzeko gogoz.

Medikuek gizonarekin hitz egin ondoren, bere bi alaba jaioberriak adopzioan ematea proposatu zioten. Bera gizon arrunt bat zen, baita aita ere, bere emakumea hil zen, bere gurasoak duela hamar urte, eta ez zuen ez anai-arrebarik, ez osaba-izebarik, ez ezer ere. Bere bi alaba bikiak soilik zeuzkan: Ana eta Maria.

Etsipenak jota, adopzioan ematea erabaki zuen, bizitza hobea izango zuketela pentsatuz.

Familia asko zain zeuden ume bat jasotzeko adopzioan. Egun gutxi pasatu eta gero, bikiak banatu zituzten, eta bakoitza familia batean hasi zen bere bizitza berria.

Bakoitza familia batean hazi zen, eta ez zuten inoiz jakin biki bat zutela. Beren aita biologikoa, Ramon, beti damutu zen haiek adopzioaz eman izanaz, ez zegoen egun bat haiengan pentsatzen ez zuenik.

Ramon kirurgialaria zen bere alabak jaio ziren ospitalean, horrek, alde batetik, laguntzen zion informazioa lortzen haiek aurkitzeko, baina, bestetik, tristura handia ekartzen zion toki horretan berriro egoteak.

Ana eta Maria oso alai hazi ziren haien adopziozko familiekin; biak Bilbon bizi ziren arren, ez zuten inoiz elkar ikusi. Bi neska arrunt bezala hazi ziren, Anak erizaintza ikasi zuen; Mariak, ordea, enpresa-ikasketak.

Mariak familiaren enpresarekin jarraitu behar zuen alaba bakarra baitzen; horregatik, bere gurasoek asko eskatzen zioten ikasketetan, baina berak ez zuen hori egin nahi, baizik eta aktorea izan nahi zuen. Bi gauzak batera egin ahal izateko, bere gurasoek ohorezko matrikula ateratzeko eskatzen zioten. Oso neska ikastuna izan arren, ez zuen hori lortzen.

Anak, ordea, beti izan zuen bere etorkizuna oso argi. Betidanik jakin zuen erizaina izateko dirua irabazi behar zuela; bere gurasoek ezin izango zizkioten ikasketak ordaindu, beste sei seme-alaba zituztelako.

Egun batean, Maria unibertsitatera zihoala, kamioi batek bere autoaren kontra talka egin zuen, eta oso istripu larria izan zuen. Minutu gutxitan anbulantzia bat iritsi zen, eta ospitalera ahalik eta bizkorren eramane zuten. Hain zuzen ere, egun horretan Anak erizain praktikak hasten zituen ospitale hartan.

Maria azkar sartu zuten ospitaleko larrialdietara. Bat-batean Anak ikusi zuen ia bera bezalako emakume odoltsu bat, baina ez zuen sinesten; bera adoptatua zela bazekien, eta momentu horietan gauza asko pasatu zitzaizkion burutik.

Emakume horri korrika hurbildu zitzaion, baina emakume horrek, Mariak, birikaren berehalako transplantea behar zuen. Harengana hurbiltzerakoan, Anak oso gauza arraroak sentitu zituen bere baitan, eta baita irudimenean ere adoptatua izateagatik... Oso gauza arraroak.

Birika bat transplantatzen ez bazioten, neska hilko zela esan ziotenean, Anak hari bere birika bat ematea erabaki zuen, zerbaitek elkartzen zituela sentitzen zuelako.

Ebakuntza gelara pasatu zituzten, eta kasualitatez, operazio hori eramaten zuen kirurgialaria haien aita biologikoa zen. Berari oso arraroa iruditu zitzaion,

sentitzen zuen haiek bere alabak izan zitezkeela, baina lehenik bi neska haiek salbatu behar zituen, eta gero ikertuko zuen.

Hamabi ordu operatzen egon ondoren bukatu zuten. Esnatuko ziren arte itxarotea falta zen soilik.

Kirurgilariak, Ramonek, bakoitzaren ile bat hartu zuen, eta bere ilearekin batera analizatu zituen. Aita eta alabak zirela jakin ondoren, berreskuratu zituela sentitu zuen.

Korrika joan zitzairen neskei hura kontatzera; Anak ere hura ikertu nahi zuen operazioa ondo ateratzen bazen. Logelara ailegatzean haiek hitz egiten ari ziren, ez zuten ulertzen zergatik ziren berdinak, eta erantzun bat behar zuten.

Ramonek istorio eta egia guztia haiei kontatu bezain laster, ez ziren berriro banatu.



ZURI-BELTZEKO ARGAZKI BATEN ISTORIOA

Garazi Oñate Zarraga
Solokoetxe BHI

Eguna txarto hasi da. Goiz osoa neraman gurasoen aldetik errieta jasaten eta gehiago ezin nuenez, amamaren etxera joan naiz. Bere etxean nagoenean, ikasle-pisu partekatu batean biziko banintz bezain libre sentitzen naiz, hori bai, joaten naizen bakoitzean etxeko lanekin laguntzen dut.

Amama bakarrik bizi da. Sukaldean egiten du bizitza, telebistaren aurrean, eta beti liburu bat eskuetan izaten du. Beraz, egongelak hautsa kentzeko baino ez du balio. Trapua hartu eta hortik hasi naiz, zuri-beltzeko argazkitik. Beti leku berdinean dago, egongelan, aintzinean guztiek etxean zuten tximinia zahar horietako baten gainean, kaobazko marko batekin apainduta. Argazkian gizon baxu eta sendo bat agertzen da. Gutxi gorabehera 30 urtekoa eta begi

bakarrekoa. Oso dotore dago jantzita, kapela eta guzti. Haren atzealdean, izugarrizko jauregia begiets daiteke.

Hori da osaba Bittor. Behintzat horrela deitzen dute familian, baina bere benetako izena Jose Victor Beurko Loizaga da.

Jaio nintzenetik izen hau izan da gehien entzun dudana. Oraindik jaio berria nintzela, uste dut kontatu zidala amamak lehen aldiz bere istorioa, eta gerotik, hamaika aldiz errepikatu du.

Garbiketa lanetan murgilduta nagoela, bat-batean, amamaren ahotsa entzun dut:

—Malen! Etor zaitez!

Korrika batean joan naiz sukaldera, zer edo zer gertatu zaiola pentsatuz; baina heldu naizenean, han ikusi dut sukaldeko marmolezko mahaian duen telebistaren aurrean abesten, eta horrek guztiz lasaitu egin nau.

Zer gertatu da? —esan dut.

Amamak atzamarrarekin telebista seinalatu, eta bertan zuri beltzean agertzen den irudia «Carlos Gardel» dela esan dit, garai hartako galaia. Esan dezakegu oraingo «Zac Efron» izan daitekeela. Gardel, hain zuzen ere, «Por una cabeza» tangoa abesten ari da, eta honek osaba Bittorren istorioa berriz ere kontatzera bultzatu du.

Osaba Bittor bizimodu hobea lortzeko asmoz, 1930. urtean Argentinara joan zen Bilboko portuan hartutako «Aurigny» itsasontzian, 30 urte ia beteta zituela. Buenos Airesen diru mordoa irabazi omen zuen. Hori da, behintzat, familiak uste duena gutun batean kontatzen duenaren eta lehen aipatutako zuri-beltzeko argazkiaren arabera. Baina egia bakarra da; ez zen berriro Euskal Herrira bueltatu.

Gaur amamaren etxean geratu naiz. Gauean, lo egin ezinean, ezinezkoa egin zait tango hura burutik kentzea, eta momentu horretan osaba Bittor benetan zergatik ez zen Euskal Herrira bueltatu galdetu diot neure buruari; imajinatzen hasi naiz istorioa desmuntatuz:

Egun hori txarto hasi zen Bittorrentzat, gurasoek ez zuten bera joatea nahi izaten, baina hamar urte zeramatzan bidaia txartelerako aurrezten, hori baitzen haren ametsa.

Bilboko portuan hasiko zuen 40 eguneko bidaia latz hori, Buenos Aireseko portura heldu arte. Amamaren ustetan, osaba Bittor, Bilbon bezala, arotz lanetan ibili zen. Berak gutunean aroztegi propioa zuela aipatu baitzuen. Baina nire ustetan, bidaian bertan Argentinan lana eman zion gizon bat ezagutu zuen. Eta esne-saltzaile edo igeltsero edo nork daki zertan aritu zen gaixoa.

Argi daukat hasiera ez zitzaiola batere erraza egin. Beharbada, alokatutako logela narras batean bizi izan zen. Hain zen gaixoa, ezen behin batean ogi puska batengatik beste gizon batekin borrokatu baitzen, eta begi bat galdu zuen.

Urte bi pasata, gutun eta argazki horiek bidali zizkion familiari gauzak ezin hobeto zihoazela jakinarazteko; baina egunero goizetik gauera lan egiten zuen, eta lortzen zuen diru gehiena jaietan eta alkoholean xahutzen zuela esango nuke. Agian, egia

da aroztegi propioa lortu zuela, baina behar bada, apustueta galdu zuen dena.

Hau guztiau zuri beltzeko argazkitik ateratako istorioa da. Ez dugu inoiz jakingo zer demontre gertatu zitzaion Osaba Bittorri, baina argi daukat nahiago dudala amamak kontatutakoarekin geratu.



KARTOIZKO PANPINA

María Meaza García
Artxandape Ikastola HLBHIP

1 955ean Iturrigorrin bizi zen zazpi urteko ume bat Pilar deitzen zen. Oso neskatila jatorra, eskuzabala, ulerkorra eta polita zen. Begi urdinak zituen, itsasoko ura bezain argiak; ile horia, sudur eta aho handiak zituen. Juan bere aita zen, eta Laura, bere ama. Amaren gurasoak haiekin bizi ziren, Karmen eta Antonio. Bizi ziren etxea bost pertsonentzat txiki samarra izan arren, nahiko ondo moldatzen ziren.

Gabonak heldu zirenez, etxea apaindu zuten, eta Pilarrek Errege Magoentzako gutuna idatzi zuen.

—Nik panpin bat eskatuko dut —esan zion Pilarrek familiari.

Gutuna idatzi ostean gurasoekin postontzira botatzera joan ziren. Urta-rrilaren bosta heldu zenean, gauean familia osoaren artean gailetak, esnea eta ura utzi zituzten Errege Magoentzat. Oso berandu egin zitzaientzen, eta bakoitza bere ohera joan zen. Urtero bezala Pilar oso goiz altxatu zen etxe osoan zehar oihukatzen.

—Heldu dira, heldu dira, heldu dira Errege Magoak!

Pilarrek eskatutakoa zeukan.

Hilabete bat beranduago, Pilarrek bere panpina zikin ikusi zuen, eta uretara bota zuen garbitzeko; baina ez zekienez panpina kartoizkoa zela, bustitzean desegin zitzaion. Negarrez egon zen luzaroan.

—Ez da ezer gertatzen —kontsolatzen zuen amak.

Zazpi urte zituenean, horrela ikasi zuen **NIRE AMAMA PILARREK** kartoia uretan ezin dela sartu.





D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



URAKANA

Ander Villacián Crespo
Artxandape Ikastola HLBHIP

Nerabezaro maitea:
Agian ez dituzu honelako gutun asko jasotzen, apika zuri idazten dizun bakarra naiz. Baina, zergatik ez? Hemen ageriko diren gauza guztiak adierazi nahi dizkizut zuri, ni orain zu naizelako, eta zu ni zarelako; akaso, kokoteraino egongo zara nerabeen kezkak entzuteaz, baina zuri dagokizuna da.

Urakan bat bezala heldu zinen nire bizitzara, gauza guztiak hankaz gora jarri zenituen, eta ez zenidan denborarik utzi lasaitzeko. Horrelakoa zinela konturatu nintzenean, beldurtu egin nintzen; «zer egingo dut nik orain?» galdetzen nion neure buruari. Izan ere, nire gurasoei filmetako nerabeak bezalakoa ez nintzela izango zin egin nien. Lehengo ume zintzoa eta ikastuna izaten jarraituko nuela. Zein inuzentea nintzen!

Ez nintzen gai errealitatea ikusteko, filmetatik oso urrun dagoen errealitate bat. Bai, filmek eta serieek min handia egin dute. Nerabeak kriminalizatu dituzte, ero, depresibo edo axolagabe bezala irudikatuz. Ez dakit, agian arrazoi pitin bat izango dute, baina bakarrik pixkatxo bat. Hala ere, ez dira konturatzen gu horrelakoak bagara, gure senaren errua dela, nerabezaroa gure zerizana aurkitzeko garai bat baita. Garai honetan gizarteak ezarritako arauetatik aldendu nahi dugu, aurreiritzien aurkako guda sortuz.

Ez gara axolagabeak, gauza asko axola baitzaizkigu; baina batzuetan, helduei axola zaizkien gauzak ez dira benetan inporta zaizkigunak. Inporta zaizkigun gauzen artean, lagunak daude, betidanik egon diren pertsona horiexek, eta horregatik, betirako egongo direla sinisten dugu... Zein aluak garen batzuetan! Eta zein

mingarria den lagun batek traizioa egiten dizunean. Traizioa odolaren kolorearekin gure baitan margotuta dugun hitza.

Nerabezaroa gezurrak dira. Gezurrak besteen aurrean hobeak izateko, egia mingarri eta itogarriak ezkutatzeko. Ahulagoak egiten gaituzten egia horiek, gure nortasunaren seinale ezezagunak; horiexek ezkutatzen ditugu. Besteak zu kontuan hartzeko, jendeak zu ez alboratzeko. Hala ere, itxurak eginez zure nortasunari uko egiten diozu, zure burua beste pertsona batez mozorrotuz.

Maitasuna nerabezaroaren beste topiko bat. Nerabazarora heltzean pentsatzen dugu maitasuna helduko dela egun batetik bestera, eta dena topikoz beteta egongo dela, dena perfektua izango dela; baina ez dakiguna zera da, maitasuna printze eta printzesen ipuinak baino konplexuagoa dela, maitasuna beti ez dela guk uste dugun bezain ederra.

Maitasuna, batzuetan, maitasuna ez den gauza bati deitzen zaiola, matxismoari, alegia. Begietan dugun hesgailu hori kendu behar baitugu, jakiteko maitasuna ez dela beldurra eta norberaren izaera ezkutatzea, bestea atsegin izateko; ez, maitasuna konfiantza eta elkar ulertzea da. Maitasuna elkarrekin haztea da, bizitza beste modu batean ikusteko, hau da, singularrean baino, pluralean.

Nerabezaroa zeure burua aurkitzea eta ulertzea da, hots, nolakoa zaren ulertzea; batzuetan ez zaizu gustatuko. Baina zu zeu zara, eta zeure burua maitatu behar duzu, eta egia ezkutatzeak mina bakarrik eragingo dizu. Ikasi dut gauzak kontatzea dela kasu horietarako erremedio bakarra. «Ez izan beldur» esan zidaten behin, baina oraindik beldur diot gauza askori. Hala ere, beldur asko atzean geratu dira, ni neu izateagatik, ni, eta ez beste inor.

Eskerrak eman behar dizkizut, nerabezaro, hainbat gauza niri irakasteagatik eta begiak zabaltzen lagundu izanagatik. Dena den, badakit oraindik gauza asko geratzen zaizkidala ikasteko edo ulertzeko, oraindik zure denbora ez baita agortu. Oraindik nerabe bainaiz, eta oraindik sentitzen baitut batzuetan munduarekiko gorroto adierazezina.

Oraindik ez dakit egia osoa eta badakit ez dudala inoiz jakingo, ez ditudalako inoiz bizitzaren korapilo guztiak askatuko. Ezinezkoa baita. Agian, batzuetan gehiegi konplikutzen naiz, baina nire barne eztabaidek bizitza beste modu batean ikusten laguntzen didate.

Ikasi dut jendea beste modu batean begiratzen, pertsonak bere itxuragatik ez epaitzen. Ikasi egin dut munduan desberdintasunak nagusi direla, eta nahiz eta denak desberdinak izan, «teorikoki» berdinak bagina bezala tratatu beharko gintuzketela. Baina ez, lehen mailako eta bigarren mailako pertsonak daude. Askotan, pertsonak abantailak izan zituzten jaiotzeko momentuan eta benetan, zure azalaren koloreak edo planetako zein kontinentetan, herrialdetan, edo herritan jaio zaren, asko eragin dezake. Paradoxikoa, ezta? Bada, bizitza, zentzugabeke-riaz beteta dago. Pentsatzen hasten bagara, munduko gutxiengo guztiak batuko bagenu, gehiengo bat osatuko lukete.

Ikasi egin dut bizitza ez dela kolore bakar batekoa, sakonegia baita kolore batez margotzeko. Bizitza gertatzen zaizkigun gauza guztiak eta ezagutzen ditugun pertsona guztiak baitira; imajina zenbat gauza eta zenbat pertsona! Bakoitzak bizitza modu batean ikusten duelako, kolore ezberdinez. Hau da, pertsona bakoitzaren bizitzaren pertzepzioa koadro baten modukoa da, hainbat kolorez osatua.

Ulertu dut nerabearoa iragate garai bat dela, gero abruska jausteko erreallitatearen aurka. Gauzak ez direlako errazak, eta bizi ditugun nerabearoko urte latz horiek izan omen direlako gure bizitzako urterik onenak.

Beraz, erabaki bat hartu dut, zu ulertzen saiatzea, nerabearoan ez diedala huskeriei erreparatu behar, benetan garrantzia duten gauzei baizik. Askotan jelskor jartzen baikara edozein txikikeriarekin, eta gure bizitza jasanezina dela eta besteen bizitza beti gurea baino hobea dela sinesten dugu. Baina gure ingurura begiratzen badugu, konturatuko gara besteek ez dutela guk uste dugun bizitza paregabe hura, seguruenik zer edo zertaz jelosten direla.

Gauzak horrela izanda, zuk batzuetan menperatuko nauzula konturako naiz hormonon ondorioz. Baina zugandik ikastea erabaki dut, garai honetaz gozatuz, disfrutatuz, ikasiz.



GEZURRETAN

Nerea Erdozain Toribio
Gabriel Aresti BHI

Ez da oso zaila etorkizuna iragartzea, ezta zerbait gaizki doala susmatzea ere. Zailena arrazoi duzula barneratzea da, eta tamalez, hori ez duzu barneratzen zure iragarpena gertatu arte. Mila gezur esaten dizkiozu zeure buruari, mila esperantza. Eta hori guztia zure bihotza mila zatitan ez apurtzeagatik. Zaila da jendearen aurrean irribarretsu agertzea, negargura duzunean. Zaila da ez zaizula ezer gertatzen esatea, buruan mila kezka badituzu ere; baina zu isiltzen zara, ez dituzulako arduratu nahi. Agian zuk baino problema larriagoak dituztelako; agian beste problema bat gehitzea gehiegizkoa izango litzatekeelako.

Nire aitona gaixorik dago, eta nire senak esaten dit berriro ez dela gaixotuko. Beldur naiz, denbora bukatuko den beldur. Momentu honetan minutuak segundo bihurtzen ari direla nabaritzen dut, eta denborak aitona ere eramango duela. Badakit ezin dudala ezer egin, ezin dudala gaixotasunaren kontra borroka egin, eta egin ahal dudan guztia denbora gelditzea dela; baina hori ezinezkoa da, denbora ezin delako gelditu.

Ospitalean nago, berari begira. Gero eta argalago dago, gero eta zurbilago. Ezin dut jasan nola pixkanaka-pixkanaka gaixotasun honek haren gorputzeko atal guztiak pozoitzen dituen. Ezin dut jasan nola ezin dudane ezer ere egin, ezin baitut sendatu pozoituta dagoena. Aurpegira begiratu diot, eta nabaritu dut bere irribarrea desagertu dela. Hala ere, pertsona bera izaten jarraitzen du, eta horrek poztasuna ematen dit.

Beti esan didate aita eta aitona berdin-berdinak zirela. Nik ezin dut ezer esan, aita ez



bainuen ondo ezagutu. Zortzi urte nituela, aita itsasora joan zen arrantzale gisa, ordutik ez da bueltatu. Horregatik, haurtzaroa aitonaarekin pasatu nuen, itsasotik urrun. Aitona arrantzalea izan bazen ere, itsasoa gorrotatzen zuen. Handiegia iruditzen zitzaion berarekin konparatuta. Ahultasuna, arriskua eta beldurra sentitzen zuen itsasora begiratzean, bazekielako itsasoa haserre bazegoen, bera eramango zuela betirako. Horregatik, bere buruari zin egin zion, ez ziola bere semeari arrantzalea izaten utziko. Semeak, ordea, ez zion jaramonik egin, eta gau batez beste arrantzaleekin batera itsasora joan zen, bertan betirako geratuz. Ordutik aitona bere semearen heriotza leporatzen dio bere buruari, zorrotzago jokatu behar zuelakoan. Badakit aitona itsasoak bere semea noiz itzuliko zain egoten dela gauero, oraindik itxaropena ez baitu galdu.



Horretan gizakiak profesionalak gara, okerrak egiten nahiz gezurrak esaten. Batzuetan nahi gabe, besteetan apropos, maleziarik gabe edo maleziarekin, beti gezurretan egoten gara. Eta txarrena, geure buruari ere esaten dizkiogula. Ez dakit zergatik egiten dugun. Agian ez dugulako sinetsi nahi gertatuko dena; agian egiak mila zatitan apurtuko duelako zeure bihotza, eta horretarako ez zaudelako prest. Horregatik, itxaropenez eta gezurrez betetzen dugu burua, egiatik babesteko.

Aitonaren eztulek esnatu naute. Arnasketa bortitza du, eta argi ikusten zaio barruan duen mina. Denbora aurrera doa, eta gero eta urrunago susmatzen dut. Gaixotasun honek aitona leku urrun batera eraman nahiko balu bezala, nigandik baztertuz. Momentu honetan txikiegi sentitu naiz, ahulegi, aitona itsasoan sentitzen zen bezala. Eta argi ikusi dut olatu batek aitona daramala itsaspean gordetzeko. Pentsamendu hauek guztiak burutik kentzen saiatu naiz, eta itxaropen hitza buruan sartu dut, une honetan sendatuko dela eta biok batera etxera bueltatuko garela desiratuz. Hau guztia laster bukatzeko gogoz. Itsasoa bare egoteko desiraz. Bi malko erori zaizkit masailetik eta aurpegi osoa busti didate. Banekien neure buruari gezurretan nenbilkiola eta laster egia ikusiko nuela. Bihotza mila zatitan zatiko didala.



ERRAUTSETATIK BERPIZTUA

Nahia Carmona Molina
Artxandape Ikastola HLBHIP

2011ko maiatzaren 9a

2Eider naiz, 31 urte ditut eta kartzelan nago; bai, kartzelan. Hemen nago duela hiru aste nire senarra hil nuelako. Oso pertsona ahula naiz, indar txikikoa; baina, hala ere, duela hiru aste senarra hil egin nuen. Beno, hori uste dute behintzat. Bihar epaituko naute, eta kartzelara joan behar dudan ala ez erabakiko dute. Bai, badakit kartzelara joango naizela ziurrenik, baina inork ez du jakingo benetan zer gertatu zen.

(6 urte lehenago...)

2005eko apirilaren 20a

Eider naiz, 25 urte ditut, eta Alexekin bizi naiz, nire senarra izango denarekin. Hiru hilabete barru ezkonduko gara, eta gauza pila bat prestatzen dihardugu azken asteotan. Alex oso pertsona indartsua eta maitekorra da, baina pixka bat burugogorra ere bai. Askotan haserretu egiten da, berak nahi duena egiten ez dudanean, baina oso denbora gutxi egoten da haserre. Alex asko maite dut, eta berarekin egoten naizenean alaiago sentitzen naiz.

2005eko maiatzaren 20a

Bi hilabete bakarrik falta dira ezkontzarako! Ilusioz beterik nago, baina Alex ez horrenbeste. Azken egunotan haserre samar egon izan da, eta hainbat alditan

eztabaidatu dugu. Nirekin haserre zegoela uste nuen, baina atzo, ni apur bat la-saitu ondoren, bere haserre laneko estresaren ondorioa dela esan dit. Alexek kontatu zidan azkenaldian lan pilo bat izaten ari dela, eta gainera, ezkontza pres-tatu behar dugunez, lanez gainezka dabilela, nahiko estresatuta. Nik, noski, berak esandakoa ulertu eta besarkada bat eman diot. Gaur alaiago esnatu da.

2005eko ekainaren 28a

Azkenaldian, ezkontza prestatzen dihardut ia egun osoa. Alex azken hi-labeteen bezala, aste bat haserre darama, eta eztabaida gogor batzuk ere izan ditugu. Alde ona da, aurreko hilabeteen gertatzen ari den bezala, badakidala ez dela nirekin haserretu, nahiko estresatuta dagoela baizik. Hala ere, laster berriz alai egotea espero dut.

2005eko uztailaren 20a

Gaur ezkondu gara! Ilusioz beterik nago, eta poz-pozik. Alex azken aste honetan ez da ezertxo ere haserre egon, eta nahiko alai egon da. Baliteke hori ezkontza osoa ia prestatuta zegoelako izatea, eta berak lan apur bat gainetik ken-du duelako. Elkarrekin oso zoriontsuak izango garela uste dut.

2006ko uztailaren 20a

Gaur gure lehen ezkontza urteurrena izan da. Gure lehen urtea nahiko ondo joan da, baina Alexen izaera aldatzen ari da. Gero eta errazago haserre-tzen da, eta oso gutxitan egoten da alai. Ni berak nahi duena egiten saiatzen naiz askotan, bera haserre ez egoteko, baina elkar maitatzen jarraitzen dugu. Duela astebete Alexek esan zidan nire janzkera gehiago zaintzea komenigarria iruditzen zitzaioela, hau da, gona motzak ez janztea, eskoteak dituzten kamisetak ez janztea, mahuka motzegiak ez janztea... Urte bat generaman ezkondu, eta esan zidan ez zela aproposa horrela janztea ezkondu egonda. Egia esanda, ni ez nintzen horretaz konturatu lehenago, eta Alexek hori esan ostean, birritan pentsatu gabe, jantzi batzuk zakarretara bota nituen.

2007ko urtarrilaren 20a

Duela urte eta erdi ezkondu ginen. Zein azkar doan denbora! Gure lehen urteurrenean pentsatutako gauza bera uste dut oraindik. Alex gutxi-gutxika alda-tzen ari da, alaitasuna galtzen egongo balitz bezala. Egia esanda, apur bat ardu-ratu egin nau gai horrek. Batzuetan, pentsatzen dut ea ni oraindik maite izango nauen ala ez. Gero eta gutxiago irteten gara kalera, berak nahi izaten ez baitu. Nire lagunak haiekin irteteko esaten didate, baina ni ez naiz irteten, Alex nirekin ez haserretzeko.

2007ko apirilaren 20a

Hiru hilabete falta dira gure bigarren ezkontza urteurrenerako. Ni gero eta goibelago nago, Alexek berdin jarraitzen duelako. Gaur, goibel samar nengoen, eta berari galdetu diot ea oraindik maite ninduen. Alex, nik hori galdetu bezain laster barrezka hasi da, eta musu bat eman ostean hauxe esan dit: «Nola galde diezadakezu hori? Noski maite zaitudala, bestela, zergatik egongo nintzateke zu-

rekin ezkontuta eta bizitzen, maite izango ez bazintut?» Erantzun horren ostean, lasaiago sentitu naiz, baita alaiago ere,

2007ko uztailaren 20a

Gaur, gure bigarren ezkontza urteurrenean, nire lagun Anak telefonoz deitu dit. Azkenaldian ez garela elkarrekin egon esan dit, eta gaur berarekin geratzeko proposamena egin dit, Alex gabe. Nik, hori entzutean, biok joatea hobe zela esan diot, baina Anak nirekin bakarrik egon nahi zuela adierazi dit. Anak esan dit Alexek ni kontrolpean naukala eta berarekin egoteak nigan eragin txarra duela. Zelako txorakeria! Anarekin haserretu egin naiz, eta telefonoa eseki dut.

2007ko abenduaren 17a

Ni gero eta lan gehiago egiten saiatzen naiz Alex ez haserretzeko, baina azken astea gripeak jota egon naiz, eta ezin izan ditut gauza batzuk egin. Alex nirekin haserretu eta alferra deitu dit. Ni gaixorik egon arren, ezin dudala etxeko lana alde batera utzi esan eta ukabilkada bat eman dit bat-batean. Barkamena eskatu dit, baina merezi nuen, berak arrazoia zuen.

2008ko uztailaren 20a

Hirugarren ezkontza urteurrena, baina ez da egun alaiagoa arrazoi horregatik. Ni astebete gaixorik egon ondoren, Gabonetan pila bat opari egin zizkidan, baina ordutik hona, hainbat alditan jo nau. Badakit hori ez dagoela ondo eta dibortziatu beharko nintzatekeela, baina nora joango nintzateke? Alex maite dut, eta beldurra ematen dit dibortziaztean berak zer egin ahal izango lukeen pentsatzek.

2009ko uztailaren 20a

Laugarren ezkontza urteurrena, eta iaz bezala jarraitzen dugu. Alexek gero eta maizago jotzen nau, baita gogorrago ere. Infernu honetatik alde egin ahal izango banu...

2010eko uztailaren 19a

Izugarri ikaratuta nago, bihar izango litzateke gure bosgarren ezkontza urteurrena, baina duela bi ordu gertatu denak oso beldurtuta utzi nau; ez dakit zer egin. Askotan bezala, Alex haserre zegoen. Ni, leihotik begira nengoen txoriei txio-txioka entzuten. Halako batean, berak bere indar guztiarekin lepotik heldu eta biratu egin nau. Berak ni jo nahi ninduela ikusi dut bere begietan, eta berarekin hitz egiten eta lasaitzen saiatu naizen arren, bera haserretzea bakarrik lortu dut. Ni jo nahi ninduen, defendatzen saiatu naiz, baina ahula naizenez, ezin izan dut askorik egin. Alex haserreago jarri da, eta indar handiagoz jotzen hasi da. Nik bere aurpegian urratu batzuk egin dizkiot atzazkalekin, baina hori ez da ikaratu nauena. Bat-batean gelatik joango zela zirudien arren, korrika egiten hasi da nigana hurbilduz ukabila aurretik zuela, niri sekulako ukabilkada emateko. Nik hori ikusita, makurtu egin naiz, eta Alex abiada handian zihoanez, leihotik erori da, zabalik zegoen eta. Hamargarren solairuan bizi garenez, buruan sekulako kolpea

hartu eta hil egin da. Ikaratuta gelditu naiz. Nik ez dut bera hil. Izan ere, ez dut pena handirik sentitzen, berak joko ez nauelako.

2010eko uztailaren 20a

Gaur poliziak nire etxera etorri dira, eta nik bera hil dudala eta kartzelara joan behar dudala esan didate. Nik ez nuen ezer ulertzen. Dirudienez, Alexek urratuak eta ubeldura batzuk zituenenez, nik bera leihotik bultzatu dudala uste dute; beraz, bere heriotzaren erruduna omen naiz. Ez dakit inork nik kontatuko dudan benetako istorioa sinetsiko ote duen.

2011ko maiatzaren 10a

Epaiketa amaitu berri da, eta erruduna naiz. Ez dute sinisten bera leihotik erori zenik, eta nik bultzatu nuela uste dute. Hala ere, nik bere erasoaren ondorioz ubeldura batzuk nituenenez, bidezko defentsan egin nuela esan dute, eta bost urte soilik egon behar izango dut kartzelan. Kartzelatik irteten naizenean, berpiztu egingo naiz, ordutik aurrera, bizitza lasaia eta alaia izan ahal izango dut.



HIRU PAUSOTAN

Teresa Macarulla Uriarte
Ntra. Señora de Begoña LBHIP

Pauso bat eman zuen. Askatasuna lortzea, hori zuen amets. Hegan edo jausi, berdin zion, era batera edo bestera bere helburua beteko zen eta. Euriak azal ilunaren lokatza edo odola garbitzen zituen, freskotasuna eta lasaitasuna eskaintzen zizkion. Haize gozo eta leun horrek gorputz osoan laztan egiten zion, eta ile beltz eta kizkurra astindu egiten zuen.

Momentu batez bere pentsamenduak oso urrun joan ziren, txabola batera, haren gurasoak bizi ziren txabolara. Etxe txiki horretako altzari, pareta eta ate guztiak bere buruan irudikatu zituen. Bai, oso ondo gogoratzen zuen. Bazekien min guztiaren oinarriak bertan jaio egin zirela. Gurasoen bultzada bakoitza, esku handi eta maltzur haietako ukabilkada guztiak, ostikada bakoitzaren ostean zorua-
ren kontra jasotako kolpeak...

Baina gauza guztien artean minik handiena eragiten ziona harenganako hitzak eta pentsamenduak ziren. Aitaren ahotik ateratako guztia mespretxua eta gorrotoa zen; hitz horiek harriak balira bezala, bere buruaren gainean jausten ziren. Amak botatzen zizkion sorbaldaren gaineko begiradak, oihuak... Inork ez zuen maite.

Begi berdeak izateak kondenatu zuen, haren zainetan zegoen odol errusiarraren ebidentzia zelako. Amari gertatutako bortxaketa baten fruitua zen. Gurasoek gerrako iluntasuna, krudelkeria, mina eta heriotza kolore argi horretan islatuta ikusten zituzten. Errusiarren begiak bezalakoak ziren. Hori zen sufrimendu guztiaren eragilea, horren ondorioz bizitzaren argi izpi guztiak amatatuta zeuden.

Beste pauso bat. Askatasuna nahi zuen, horixe bakarrik. Txoriek bezala hegan... Inork ez zuen faltan botako, ez zuen garrantzizko ezer atzean utziko. Egin behar zuen guztia eginda zegoen, behin bertatik joanda munduak berdin-berdin funtzionatuko zuen. Sufrimenduarekin amaitzeko gogo zuen? Bai, noski, irrikan zegoen. Bakarrik pauso bat geratzen zitzaion, horren ostean bere bizitzaren kolpe gogorrena jasoko zuen, baina ondoren hegan egingo zuen, eta iluntasun horretatik askatuko zen guztiz.

Aurpegia ukitu zuen, hotz zegoen. Bere begi argiak, esmeralda modukoak, puztuta zituen negarraren ondorioz. Egun batean edukitako azal leun eta fina zauriz eta ebakiduraz beteta zegoen. Malko bat bere ezpainetara heltzen sentitu zuen, beste bat gehiago. Bizitza laburra izan zuen, bederatzi urte baino ez. Existentziaren azken momentuetan zegoen. Bizipen politak gogoratu nahi izan zituen, baina ez zen gai izan. Bakarrik momentu gogorak etortzen zitzaizkion burura.

Egun batean etxeko koadro bat apurtu zuen, eta amak haserrearen ondorioz armairuan giltzaperatu zuen hiru egunez, jan eta edan gabe.

Beste behin, arratsalde batean eskola amaitu ondoren, kalean geratu zen, eta ordu laurden berandu iritsi zen etxera. Aita horretaz konturatzean ganbarara joan, egurrezko makil sendo bat hartu eta hanketan jotzen hasi zitzaion.

—Hankak apurtuko dizkizut, neskato, horrela ezingo zara ibili, ezta etxera berandu heldu ere.

Berak bazekien gorputzeko zauriak sendatuko zirela, baina buruko arrakala ikusezinak ez zirela inoiz itxiko. Ez zen berriro zoriontsua izango; horregatik, pauso txiki hori eman behar zuen.



Lurrera begirada bat bota zuen, olatuek itsaslabarraren kontra talka egiten zuten. Haizea gero eta gogorrago zebilen. Guztiz bustita eta hotzak zegoen, baina ez zitzaion axola. Euriak garbitasunaren sentsazioa ematen zion.

Pentsatzeari utzi zion, bakarrik ideia batean zentratu nahi zuen bere burua, hirugarren pausoan. Azkenengo momentuan ahulezia sartu zitzaion gorputz osoan. Ile puntatik oinetara dar-dar itzela sentitu zuen. Burua astindu zuen. Ez, argi zegoen, beharrezkoa zen hori egitea; bere burua derrigortu zuen firme jarraitzera. Segundo bat bakarrik iraun egingo zuen minak... Bakarrik segundo bat gehiago, eta dena amaituko zen.

Azkenengo pausoa eman zuen, erabakia hartuta zegoen. Gorputza nola jausten zen sentitu zuen. Bihotza gelditu zitzaion. «Joan hadi betiko eguna, joan hadi betiko gaua, joan bitez betiko iluntasuna eta mina, joan hadi betiko ezagutzen dudana guztia».

Eta gauza guztien gainetik, beldurraren gainetik besoak luzatu eta hegan egin zuen. Zeruari begira hegan egin zuen, leku berri batera. Azkenik, aske zegoen, bakez beteta. Bere esmeralda berdeak, gorpua eta bertan zituen zauri guztiak itsasoan utzi zituen, «urak garbi dezan» pentsatu zuen. Ez zen damutu, orain txori bat bezalakoa baitzen.

EZ DUT EZER ULERTZEN

Ibone Ipiña Villamariz
Ikasbide HLBHIP

Jaiotzen garenetik eginkizun batzuk jartzen dizkigute; zakila badaukazu, urdina jartzen dizute, arropa, logela, zapatilak, etab. Alua badaukazu, berriz, arrosa jartzen dizute. Sei urte bakarrik ditudanez ez ditut rol horiek ulertzen? Hori izango da?

Atzo Olentzeroren opariak pentsatzen nituen bitartean, ideia bat etorri zitzaidan burura, Gabonetako jostailu katalogoa hartzen banuen, errazagoa izango zen jostailu bat erabakitzea. Sukaldera joan nintzen katalogoa hartzera eta aita aho zabalik ikusi nuen telebistaren aurrean. Gizon batek, betaurrekodunak, bere emaztea bere semearen aurrean tiro batez hil zuela azaltzen zuen. Orain aho zabalik zegoena ni neu nintzen. Nola izan ahal da jendea horrelakoa? Sei urte bakarrik ditudalako ez dut hori ulertzen? Hori izango da?

Oraindik beldurtuta katalogoa hartu nuen sentimendu hori kentzeko asmoz, baina nire haserrea handitu baino ez zen egin; lehen azaldutako rol generoak berriz ikusten ziren katalogoan! Atal bi zeuden, urdina eta arrosa; atal urdinean bakarrik mutilak ikusten ziren autoekin, borroka jostailuekin... Atal arrosan, berriz, bakarrik neskak ikusten ziren panpinekin, sukaldeekin, makillajearekin...

Orduan, mutila bazara, ezin zara makillatu, ezta panpinekin edo sukaldeekin egon ere? Eta neska bazara, ezin zara autoekin jolastu? Zergatik? Sei urte bakarrik ditudalako ez ditut rol horiek ulertzen?

Atzo, nire klaseko neska batek, printzesetan jolasten zebilenak, mutil bat behar zuela bere printzea izateko eta dragoi batengandik salbatzeko esaten zuen. Orduan, neskak mutilen menpe daude? Neskek ezin dute beren burua salbatu mutilen laguntzarik gabe?

Dirudienez, ez dut ezer ulertzen.

PERTS♀NAK

Anne Parrado López
Ikasbide HLBHIP


Kaixo, ni 15 urteko pertsona bat naiz, ez dizuet esango nola deitzen naizen; agian amaieran esango dizuet, baina lehenengoz, neure bizitza kontatu nahi dizuet.

2002ko uztailaren 14an jaio nintzen Bilbon. Txiki-txikitatik oso irribarre-tsua naiz, pixka bat potoloa nintzen arren, denborarekin argaldu egin naiz. Oinez hasi nintzenetik beti pilota baten atzetik ibiltzen nintzen, etxean beti jolasten ari nintzen, baina, noski, guraso guztiek bezala, errieta egiten zidaten. Beno, ondo pentsatuta, arrazoia zeukaten, behin telebista apurtu nuen eta. UPS!

Parkean milaka ordu ematen nituen pilotarekin. Noizbehinka beste ume batzuekin jolasten nintzen, baina euria edo bero asko egiten zuenean, ez zegoen inor, baina niri berdin zidan, futbola maite nuen.

Egun batean etxean aitak esan zidan partida bat ikusteko telebistan. Nik ez neukan gustuko ikustea, jolastea bakarrik, baina ez neukanez ezer egiteko bera-ekin eseri nintzen partida ikusten. Partida ikustean harrigarria iruditu zitzaidan, eta asteburu horretan partida guztiak ikustea erabaki nuen; ez bakarrik asteburu horretan, astebururo ikusten nituen.

Futbola hain gustukoa nuenez, 2012ko uztailaren 14a gogoratzen duzue zer den, ezta? Bai, nire urtebetetzea; horregatik, aitak sorpresa izugarria eman zidan, Athleticen bazkide egin ninduen berarekin eta amarekin joateko.



Egun batean, zelaira joateko bidean orkatila apurtu nuen, arineketan joan ginen ospitalera, eta bi hilabete ibili gabe egon behar izan nuen.

Ezin nuenez ezer egin, etxean ematen nuen denbora osoa Playean jolasten. Aspergarria dirudi, baina autoen lasterketako jokoak nituen, baita futbolekoak ere; horregatik, milaka ordu eman ahal nituen.

Beno, orain sekretu bat kontatuko dizuet, 14 urte nituenean lehenengo aldiz maitemindu nintzen, nire ikastolako neska bat zen... Hain ederra eta jatorra.

Aiba! Berandu egin zait, ile apaindegira joan behar dut orrazkera berri bat egitera, ilea oso motz alboetatik eta tupe bat goiko aldean.

Beno, lehenengo nire izena esan behar dizuet, lehen ez dizuet kontatu eta. Elene deitzen naiz.

Zer? Zeu ere harritu zara? Ia egun guztietan mutila ez naizela azaldu behar izaten dut. Egia esanda, gizarte honek nazka ematen dit, zeren eta estereotipo asko dauden. Neskak arrosa eta mutilak urdina? Mutilek futbola eta autoak eta neskek panpinak eta sukaldea? Neskak dotore eta beti prest mutilentzat? Neskak ile luzea eta apainduta eta mutilak motza? Benetan ez dizue nazka ematen? Aldatzeko denbora da, honekin guztiarekin amaitzeko denbora!

Bai, neska naiz, eta futbola dut gustuko, eta autoak, eta bideo-jokoak, askorentzat «mutilen gauzak» direnak nik gustuko ditut, eta zer gertatzen da? Arraroa naiz? Ez, ez naiz arraroa, ez dut nire itxura zertan aldatu behar, ezta izateko era ere, aldatu behar dena gizartearen pentsamendua da, jasanezina da hau! Ulertzen duzue, ezta? Zuek guztiak lagundu behar didazue, XXI. mendean gaude, honek ezin du horrela jarraitu.

Agur bero bat, Elene.



AURKIBIDEA

Sariak	4
--------------	---

A kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Lili eta Koko	9
• Herriko altxorra	12
• Agurea eta gazteak.....	14
• Izenik gabeko umea	16
• Udako taldea eta izurdea	18
• Ikaskide berria	21
• Zertarako nahi duzu mugikor bat?	23

B kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

• Spero	27
• Txikle baten istorioa	31
• Izar baten distira	33
• Hosto baten istorioa	36
• Pentsatzeko aske.....	38
• Gaueko amesgaiztoa.....	40

C kategoria (DBHko 1. eta 2. mailak):

• Hitzik ez	45
• Foka penagarria.....	48
• Bidaia	51
• Jaiotzean banatuak.....	55
• Zuri-beltzeko argazki baten istorioa.....	58
• Kartoizko panpina.....	61

D kategoria (DBHko 3. eta 4. mailak):

• Urakana	65
• Gezurretan.....	68
• Errautsetatik berpiztua.....	70
• Hiru pausotan	74
• Ez dut ezer ulertzen	77
• Pertsonak	79



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO



*Mi
Grafiac
Koleta*

*Mi
Grafiac
Koleta*

*Mi
Grafiac
Koleta*

*Mi
Grafiac
Koleta*

*Mi
Grafiac
Koleta*

*Mi
Grafiac
Koleta*

*Mi
Grafiac
Koleta*

*Mi
Grafiac
Koleta*